

uk

154. zenbakia / 2009ko apirilaren 1a



Ezagut ezazu zure alderik freskoena



"Tribitan  ezagutu nuen nire alderik freskoena, babarrun-ale lehor batetik justoin eder berria sortu zela ibusi nuenean. Bizjak eta naturak aurrera egiten duten gure  harridura eta gozamenarako. Eta orain, horrenbeste  urte pasa direnari, gitarra bera sentitzen  dut, baina Udal Merkatuan oraingoan.  Bertan inguru natural batera bainaramate  boloreak, usainak, tratu atseginak eta kalitatezko produktuek. 96 100 naturalak eta oso, oso freskoak direlako."

Eros ezazu zure **Udal Merkatuan**

udal
merkatuak
mercados
municipales

aurrera doan **herria** un país en marcha
TUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, MERKATUAK, ENERGIAREN BERRA DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagarmiraga, Maitane Nerekan, Zuberoa Iturburu, Ainhoa Lores

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega

KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurrola, Aiala Elorrieta, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskaraz Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martinez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkartearen Topaguneko parteidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Gorlizko hondartzako lanak.
7. LEHEN ETA ORAIN. Berangoko eliza.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Itziar Aguayo.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Getxoko Ibilbide Toponimikoak.
28. ARGAZKIA. Astondoko kaia.
30. BERBETAN. Eugenio Gandiaga.
34. FOTOGRAFIA. Hodei Torres.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Zinea eta HIESA zikloa Hegoak-en eskutik.
43. MUSIKA. Kandela taldea, Leioa. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Doris Lessing euskaraz. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Arenas kluba, 100 urte.
46. ELKARRIZKETA. Korrontzi taldea.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Ezkiloze produktu biologikoak, Algorta.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Lagun artea dantza taldea, 1953. Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Xabier Usabiaga.

Azala: Hodei Torres



30 Eugenio Gandiaga

Berbetan

Azken 20 urteak Getxoko Kultur Etxea zuzentzen eman ditu; erretirurako ordua heldu zaio.



11 Itziar Aguayo



54 Xabier Usabiaga



Leioa Berri Auto

- Ibilgailu barriak
- Aukerako ibilgailuak

www.renaultleioa.com

Iparagirre 94 • 48940 LEIOA • BIZKAIA
Tf. 94 480 46 02 • Fax: 94 480 42 43



Leihatila

> Aiala Elorrieta

Sinbiosia

Bada bikote molde barria. Bankuetan jarrita edo eskutik helduta ikusten ditugu egunero. Konbinazio ezberdinak dira posible, baina eredua errepikatu egiten da: laurogei bat urteko gizona eta berrogei urteko emakume kolonbia-rra. Sinbiosia osatzen dute, batak bestearen beharra dauka bizirauteko. Azken hamarkadetan, migrazio eredu barria garatzen ari da, eta horretan, protagonista bilakatu dira Hego Ameri- ketatik datozen emakumeak. Gurea bezalako herrialde “garatuetan”, emakumearen partehartzea lan merka- tuan izugarri hazi da. Horren eraginez zenbait “hutsune” geratu dira agerian, familia eta etxeetako funtzionamendu- an. Badiira ardura batzuk, ume eta pertsona nagusien zaintzagaz lotutakoak; askotan, etxetik kanpo lan egiteagaz baterazinak dira. Nola egin? Politika eta zerbitzu publiko egokirik ezean, ez da erraza. Hutsune hauek betetzea da sarritan, etorkin askoren ia aukera bakarra. Fenomeno sozial hau aztertzen duen literatura zabala da, servants of globalisation izena ere eman zaie. Gizarte “garatuen” beharrek eta etorkinen jatorriko herrialdeenek bat egiten dute horrela. Eskaria eta eskain- tzaren legea. Berriro ere... sinbiosia.

gu geu

Badago kultur aditurik?

Sarri kultura dugu berbagai UKn. Baina zer da kultura? Museotan ikusten duguna ala tabernako barran ardo artean egiten dena? Egunkarietako agendetan aurkitzen duguna ala bat- batean sortzen dena? Kultura definitzea zaila da oso; gu ez gara saiatu ere egingo. Bakoitzak defini dezala etxean edo lagun artean. Eta, baten batek, makro definizio unibertsal definitiboa aurkitzen badu, egunkarietara bidal dezala (gure aldizkarira ere bai, noski), agian elkarriketa egingo diote. Edo telebistako mahainguruetara gonbidatuko dute eta bere izenagaz batera “Kultur aditua” kargua idatziko dute.

Guk, ez dugu “kultur aditurik” ekarri ale honetara. Baina bai kulturgintzan behar garrantzitsua egin duten hainbat lagun. Alde batetik, Eugenio Gandiagari egindako elkarriketa sakona aurkituko duzu erdiko orrietan. 20 urte eman ditu Getxoko Kultur Etxea gidatzen; erretirurako eguna heldu zaionean beragaz egon gara berbetan. Horrez gain, Korrontzi folk taldea, Maite Franko ipuin kontalaria, Monika Martin artista... horiek guztiak kultura sortzen eta zabaltzen ibili dira edo ibiliko dira gure eskualdean. Azken horiek izango dira “kultur adituak”? Ala gu izango gara, euren lanari buruz idazten dugulako? Aste Santuko oporretan denbora izango dugu galdera horiei guztiei buelta pare bat emateko. Gora oporrak!

UK-ko lantaldea

Iritzia

Korrika Tuteran hasi baino egun bi lehenago bidali zizkigun Christian Reinickek ondoko berbak. Ondo etorri euskaraz bizi gura dugunon herrira!

Badator!

Iragarria da jada eta badator. Ez da zikloi, ez uholde, eta nik dakidala ez da alerta gorririk izango, baina etorri bada- tor. Banu Quasitarren Tuteratik abiatu da eta ez dago gelditzerik, txaloak hemen, barre algarak han, bertsoa, aurreksua, fan- farria eta burrunba, hamaseigarrenez eta

«Euskarak lehen mailako hizkuntza ofizialtasuna behar du Euskal Herri osoan!»

ohi bezala korrika eta jai giroan dator.

Ez dakit lehe- nengo ala biga- rren korrika izan zen hura, baina arratsaldeko bos- tak edo seiak

ziren ez ohiko hotsak erakarrita etxeko leihora hurbildu nintzenean. Ezaguna nuen jendea tartean zela, hortxe izan nuen begi aurrean algaraka eta korrika aurrera egiten zuen manifestazio bitxia. Eta ez bakarrik horregatik, jakina, baina gutxi geroago euskaltegian nintzen `ni naiz', `zu zara' eta holakoak, ordura arte

niretzat guztiz ezezagunak zirenak, por- tzierto, ondo ahoskatu eta erabili arte Mikel irakasle bizardunaren aginduz behin eta berriro errepikatzen.

Hirugarren korrikak ez ninduen etxe- an eta ustekabean harrapatu. Brotxa eskuan kolore biziz hasi gintzaizkon egun batzuk lehenagotik ongi etorria ematen. Euskaraz eta kitto!, zen orduko oihua. Gero laugarrena etorri zen, bosga- rrena... eta hamaseigarrenari ere merezi- mendu osoz eta ohorez emango diogu ongi etorria.

“Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugu- non herrira” aukeratu du AEK-k aurtengo korrikarako lelo nagusi gisa. Euskal Herrira etorri berri eta euskara ikasi dute- nei eta gure hizkuntza bizitzan zehar noiz edo noiz galdu ondoren berreuskaldundu direnei zuzendua da nagusiki, baina gogoz eta pozez euskara ikasi duen gutako zei- nek ez du bada ongi etorri epel eta atsegi- na sentitu? Ez al da izan konplizitate eta harrera ireki hori euskaraz bizitzen ahale- gintzeko orain arteko bidea erraztu eta xamurtu diguna? Korrika hizkuntzaren aldeko giroa zabaltzeko aukera paregabea da eta bertan izango gara, Tuteratik Gasteizera, Lemoiztik Erandiora edo Txiki eta Otaegi plazatik Begotxuren den- daraino korrika.

Euskarara hurbildu berri direnei besarkada handia eman eta indarrak har- tuko ditugu lehenengo hitza euskaraz iza- teko, poker aurpegia jartzen digunari lasai eta astiro euskaraz azaltzeko, haserre an- tzean erantzuten digunaren aurrean tinko mantentzeko, administrazioaren gutuna erdaraz jasotzen dugunean Behatokira deitzeko eta mundu osoaren aurrean, aldekoen zein kontrakoen aurrean ozen aldarrikatzeko: Euskarak lehen mailako hizkuntza ofizialtasuna behar du Euskal Herri osoan!

Christian Reinicke

(Ezker abertzaleko Getxoko udal hautetsia)



2008KO MARTXOA, GORLIZ

Hondarrari lekua egiteko lanak / Makinak Gorlizko hondartzan sartu dira. Jo eta su daude beharrean, udako bisitariak hurbiltzen direnerako dena prest edukitzeko. Diotenez, hondartzari berea zena izuliko diote; orain urte gutxi ipinitako porlan guztia kendu, eta hondarrari zabal eta gustura egoteko lekua egingo diote. Horrek itasoa ere pozuko du; ez du horma jo behar izango, itsagorak gura beste leku izango du. Baina hori gertatu artean, makinak eta kableak izango dira nagusi Gorlizen. Horiek eta obretako begirale adituak, noski. ○ / Argazkia: **Asier Mentaka**

Nik ikastaro berrian hartuko dut parte.*

*yo me apunto al nuevo curso.

DENDAKETAN


Nuevo curso básico de EUSKERA para comerciantes.

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

EUSKARA BIZI

INFORMAZIOA
Udala Euskarazkoa, Tel.: 94 454 62 99 (Bilbao) Lagarteta Arik Euskarazkoa, Tel.: 94 430 47 34 (Algortza) J. A. Aizkorre Euskarazkoa, Tel.: 94 460 66 71 (Aizkorri)

HABE **ELIA** **ELIPE**



[lehen]



[orain]

Iraganez doa denbora* beti / BERANGOKO ELIZA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > katu zuria



2009ko martxoa, Berango

Testua: **Beñat Vidal** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Ostaturri neskatzaren koplak

Paisaiari arerio
latzak agertu zaizkio,
txingorra, euria, elurra eta
beste hainbeste jario.
Katua dago serio,
begiradak dena dio ...
Aurtengo negu zantar-zantarrak
kolorea kendu dio.

Egurats dohakabea,
gure jaun eta jabea!
Udaberriarekin berriro
dakarkigu kolorea.
Katuaren nahigabea
hain txarra ez da ordea,
belarrak berriz hartuko baitu
esperantzaren berdea

Zuri grisak eta beltzak
bukatu dira guretzat;
berriz izango dira bazterrak
alaiak bezain ederrak.
Datozela koloreak,
koloretan uholdeak
eta zein gura duen aukera
dezala orain norberak.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal iezaguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkiren bat eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

BASALBO BASERRIA JATETXEA

MARTITURRI ESTARTA 18 / 48993 ANDRA MARI - GETXO
TEL./FAX: 94 491 34 91 / BASALBOBASERRIA@YAHOO.COM

txirrindularitza > Punta Galeak 2009ko taldea aurkeztu du



2009 denboraldiko talde argazkia

1975. urtean sortu zen Getxoko Punta Galea Txirrindulari Elkarte. Sorreratik, irabazi asmorik bako taldea izan da, eta adiskidetasuna eta txirrindularitzarekiko zaletasuna sustatzea izan ditu helburu nagusitzat. Martxoa hasieran, 2009 denboraldiko taldearen aurkezpen ofiziala egin zuten. Eskola, kadete eta junior taldeez gain, zikloturistentzako 80 lizentzia izango dituzte aurtun. Iñigo Mentxaka presidenteak, denboraldi barrirako zorterik onena opa zien taldeko kide guztiei. Bestalde, orain gutxi zendutako Miguel Montoya omendu zuten aurkezpenean. Txirrindularitzaren historian, pauso garrantzitsuak eman ditu Punta Galeak. 1979an Bizkaiko lehen emakumezkoen taldea sortu zuen; 1985ean barriz, Espainiako txapeldunak izan ziren neskak. Urtero, Getxon antolatzen den txirrindulari martxa garrantzitsuenetakoa antolatzen dute. ○

internet > gurasoen premiak asetzeko gune digitala sortu dute



Gurasoen premiak asetu eta zalantzak argitzea du xede atariak

Txatxilipurdi aisialdi elkarteak eta Goiena Komunikazio Zerbitzuak enpresak, guraso.com web gunea sortu dute, Arrasateko Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzagaz. Gurasoen premiak asetu eta zalantzak argitzea du xede atariak. Teknologia barriak, osasuna, hezkuntza formala eta ez-formala, jolasak, sexualitatea eta familientzako planak jorratuko ditu. Honez gain, gurasoentzat interesegarria izan daitekeen informazioa aurki daiteke atarian, diru laguntzen edo adopzioen ingurukoa, besteak beste. Guraso barrientzako atal berezia dauka web guneak; bertan, haurdunaldian elikadura eta osasun ohiturak zaintzeko informazioa, edota haur jaiobarriaren garapen psikologikoari buruzko artikulua aurki daitezke, dana euskaraz. ○

siaz getaria HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa

...hamia ...lehengo garaik... ...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

[talaia]

euskara > gidabaimena ateratzeko azterketa materiala euskaraz



Berbakera arrunta erabili dute euskarazko testu liburuan

Dirutza ikaragarriaz gain, buruaustea izaten da gidabaimena lortzea askorentzat. Teoria liburua hartu, eta ulertezinak egiten zaizkigun berba korapilatsuak baino ez ditugu aurkitzen; danak gazteleraz, noski. Baina, badago autoeskolen eskaintza euskalduntzeko lanean pauso garrantzitsuak eman dituenik. Debagoienako Mankomunitaetak (Gipuzkoa), gidabaimena euskaraz ateratzeko azterketa prestatzeko materiala landu du, eta horretarako, eskuliburua, test gidatuak, multimedia programa eta kartelak prestatu ditu, besteak beste. Eskuliburua hamar ataletan banatua dago, eta bertan zirkulazio arauak, trafikoko seinaleak eta bide segurtasunagaz lotura duten gaiak aurki ditzake erabiltzaileak. Produktu hori aurrera eroateko, Bide Segurtasunean katedradun den Luis Montororen laguntza izan dute. Testuaren edukia ondo bereganatzeko eta gauzak errazteko asmoz, hizkera arrunta erabili dute. ○

korrika > has zaitez berotzen, euskararen lasterketa gainean dugu!



Arratsaldeko ordu bietan sartuko da Korrika Lemoiztik


Martxoaren 26an hasi zen Tuteran AEK-k antolatzen duen euskararen aldeko korrikaldi ezaguna. Agian zuetako batek kilometroren bat egin du dagoeneko. Baina, gurera hurrera dadin bazaude, apirilaren 3an izango duzu Betagarri musika taldeak egindako kantaren erritmora korritzeko aukera. Arratsaldeko ordu bietan sartuko da Korrika Lemoiztik, eta arratsaldeko seiak arte izango dugu Uribe Kostan, ordu horretan Bilbon sartuko baita. Petoa jantzi eta korrika egiteaz gain, egun horretarako prestatu diren ekintzetan parte hartzeko aukera izango duzu. Plentzian, triki-bertso-poteoa egingo dute. Gorlizen aldiz, umeentzako jolasak eta sagardotegi ibiltaria antolatu dituzte. Getxon, Erromoko Santa Eugenia plazan izango da jaia, arratsaldeko seietan. ○



“Lagunak oso garrantzitsuak dira niretzat; beraiek ematen didate behar dudako guztia”

Itziar Aguayo > Getxoko komunikazio zerbitzuko arduraduna

Lau hilabete zituela etorri zen Itziar Aguayo Getxora; Santa Ana auzoan bizi izan da beti. Bertan hazi eta hezi da eta bertan ditu lagunak: “Txikitako koadrila mantentzen dut. Lagunak oso garrantzitsuak dira niretzat, beraiek ematen didate behar dudan guztia. Beraiek eta nire seme-alabek, noski”. Santa Anako eliza zaharreko mendi taldean ezagutu zituen lagun gehienak: “Sekula ahaztuko ez ditudan oroitzapenak ditut mendi taldetik”. Gaur egun, supermerkatua dago eliza zegoen tokian: “Lehengoz sartu nintzenean oso arrar egin zitzaidan. Dena den, eliza barria asko gustatzen zaidala aitortu behar dut”. Aguayoren bizitzaren beste parte garrantzitsu bat lana betetzen du. 20 urte baino gehiago joan dira Udaleko komunikazio zerbitzuan beharrean hasi zenetik: “Bekadun hasi nintzen, 30.000 pezetako soldatagaz”. Gaur egun, Getxoko Udaleko komunikazio zerbitzuko arduraduna da, Getxo Berri eta Getxo Irratiko erredakzio burua: “Erakunde publikoetan komunikazio ez da behar beste baloratzen. Herritarrengana heltzeko esfortzu ikaragarria egin dugu azken urteotan, hori da gure erronka nagusia. Gauzak erraz ulertzeko moduan bidali behar dizkiegu herritarrei, berba tekniko barik”. Aldaketak onartzea zaila bada ere, gustura dago egindakoagaz: “Zorte handia daukat nire herrian behar egiteko aukera dudalako, nahiz eta batzuetan zaila egiten zaidan lan kontuak alde batera uztea”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**



Reprografía

Imprimatze eta plano kopiak •
 Kartelak kolorez eta z/b •
 Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
 Fotokopiak kolorez eta z/b •
 Era desberdinetako koadernaketak •
 Plastifikazioak •
 Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •
 ermarkaketak •



Vila de Plentzia 6. zbk
 Antigua Goll - Getxo
 Tf. 944 649 087
 944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Gizarte Zerbitzuen helburuak

Aurtengo 9.859.755 euroko aurrekontua dauka Udal Gizarte Zerbitzuen sailak, udal **aurrekontu osoaren ia %10** eta sail honek iaz jasotakoa baino **%6 gehiago**

Udal Gizarte Zerbitzuen sailaren helburuen artean plan estrategikoa eta antolaketa-diseinu barria gauzatzea nabarmendu dituzte. Sailaren aurrekontua %6 hazi da aurtan, hala 9.859.755 euroko aurrekontua du 2009ko ekimenetarako; eta zenbateko hori udal aurrekontu orokorraren ia %10 da.

Plan estrategikoari eta antolaketa-diseinu barriari (apirilerako amaituta egongo ei dena) dagokienez, Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Elena Coriak zera azaldu du: “Plana 2008ko urrian hasitako hausnarketa estrategikorako prozesuaren emaitza da, legedi barrietara eta eskaera barrietara egokitzeak helburuagaz. Izan ere, joan den abenduan onartu ziren Gizarte Zerbitzuen Lege eta Bergizarteratze Sozialaren lege barrietara egokitu behar izatearen ondorioa da plan estrategikoa, horiek Gizarte Zerbitzuen eguneroko beharretan eragina edukiko baitute”. Hori gauzatzeko 150.000 euro bideratuko dute.

Aurrekontuaren zenbateko handienak jasoko dituzten ekimen nagusiak hurrengoak dira: alde batetik, Gizarte Ekintza, 5.979.420 euroko aurrekontua izango duena (oinarrizko lan sozialerako, esku-hartze plangintzetarako eta arrisku egoeretan parte hartzeko, etxez etxeko laguntza zerbitzurako eta abarrerako dirulaguntzak), eta zenbateko hori hurrengoan artean banatuko dute: 2.500.000 euro etxez etxeko laguntza zerbitzurako (iaz baino %41 gehiago); 1.683.608 euro Giza Larrialdietarako



Orduña Mendatea kaleko egoitza zaharbarritzera 200.000 euro bideratuko dituzte

ko Laguntzetarako eta 309.000 euro gizarte eta psikosozialeko alorreko zerbitzuetarako (%9 gehiago); bestetik, Edadetuentzako laguntza zerbitzua (2.080.896 euro) eta gizarteratze ekimenak (776.041 euro), eta horrekaz batera daude elkartearen sarea “indartzeko” egitekoak (230.00 euro; hiru

«Juan Bautista Zabala kalean babespeko 12 apartamentu eraikitzeko 926.416 euro bideratuko dute»

tzarmenak, dirulaguntzak e.a.) eta Immigrazio Programak (80.000 euro). Horrez gainera, Zerbitzu Orokorrarako (sentiberatze kanpainak, zaintzaileei laguntzak -lehenengoz, 25.000 euro-, urteko txostena eta beharren diagnostiko soziala egiteko e.a.) 707.524 euro erabiliko dituzte eta drogomenpekotasunak prebenitzeko

315.874 euro. Bestalde, Erromoko eta Orduña mendatea kaleko Nagusien Etxeen kudeaketarako 72.000 euro zuzenduko dituzte; eta horren albotik, Orduña mendateko egoitza zaharbarritzeko 200.000 euro gastatuko dituzte, eta Gizarte Zerbitzuen etorkizuneko egoitza barria (Urgull kalean, Algorta) egokitzeke 600.000 euro.

Amaitzeko, Juan Bautista Zabala kalean babespeko 12 apartamentu eraikitzeko 926.416 euro gorde dute. ○

Datu batzuk

- **Gizarte Ekintza:** 5.979.420 euro
- **Edadetuentzako zerbitzua:** 2.080.896
- **Elkarte-sarea “indartzeko”:** 230.000 euro
- **Immigrazio programak:** 80.000 euro
- **Zerbitzu Orokorrak:** 707.524 euro
- **Egoitza barria:** 600.000 euro
- **Babespeko 12 apartamentu:** 926.416 euro

Skate-pistak atontzeko

165.000 eurotik gora bideratuko du Udalak



Areetako skate-pista

Getxoko Udalak Areeta eta Arrigunagako skate-pistak zaharbarritzeko egitasmoak aurkeztu barri ditu. Azaldu dutenez, pista bi horiek konpontzeaz (zorua konpondu eta ertzak ostera ere egin) eta argiztapena hobetzeaz gainera, adituen arabera zaharkituta edo erabilera gutxiko elementuak kenduko dituzte, eta skater-ek eskatzen dituzten beste elementu garaikideago batzuk ipiniko dituzte. Udaletik azaldu dutenez, egitasmoak “honelako kontuetan adituak direnek garatu dituzte eta skater-en babesak daukate”.

Lanak Udal Inbertsioetarako Estatuko Fondoaren kontura finantzatzeko dira, eta maiatzaren hasita, irailerako amaituta egotea espero dute.

Alde batetik, Areetako pistari dago-kionez, aurrekontua 86.900 euro inguru-

koa da, eta hurrengoak dira aurreikusi dituzten barrikuntzak: grind-box-eko beste elementu bat gehitu, eta irristaketarako metalezko errailaz eta arrapala txiki eta plano oker eta baxuak ipini.

Bestetik, Arrigunagako egitasmoa 78.500 euro inguruko aurrekontua bideratuko dute, eta bertan hauek izango ditugu elementu barriak: harmailak handituko dituzte; half pipe-an dagoen coping-a (burdinazko ertz borobila) kendu, eta gune horretako mendealdeko baranda ere kenduko dute; bank-aren ertzean piramide ebaki bat (lurrazpiko piszina) ipini; grind-box-eko elementua jarri (irristaketarako eta akrobaziak egiteko ertz bereziak dituen gunea) eta orain dau-den arrapalen alboetan igarobide okerrak eraiki. ○

GARAPENERAKO LANKIDETZA SAILAK AURTEN 582.159 EURO

Aurreko urteko aurrekontua baino %13 gehiago jaso du aurtan Garapenerako Lankidetzaren sailak, 582.159 euro, hain zuzen. Kopuru horren gehiengoaz azpigaratutako edota garapen bidean dauden herrialdeetako garapen egitasmoetara, sentiberatze egitasmoetara eta garapenerako hezikuntzarako proiektuetara (horiek baitira helburu nagusietako batzuk) bideratuko dute. Beste helburu eta ekintza nagusien artean hauek daude: Bidezko Merkataritza bultzatzea, GKEren lan taldearen koordinazioa sustatzea (horien diru-laguntzetarako 18.720 euro), genero ikuspegia kontuan hartzea, Euskal Fondoan parte hartzea (50.025 euro), Oporrak Bakean ekimena (16.278 euro), Sahararen Aldeko Euskal Karabana (18.000 euro) eta udalerriko elkartearen sarea indartzeko.

SAN MARTIN ETA MALAKATE ARTEKO KALE BATZUEN KONPONKETA

Getxoko Udalak Unbe, Urduña, Iturribide, San Martin eta Jaime Morera kaleak hobetu eta osorik zaharbarritzeko, eta Unbe eta Urduna kale arteko parkea konpontzeko lanetara 730.000 euro bideratuko ditu. Lanok Udal Inbertsiorako Estatuko Funtzaren diru-laguntzagaz finantziatuko dituzte, maiatzaren hasiko ei dira, eta 6 hilabetearen amaitu. Getxoko Alkate Imanol Landak adierazi duenez, “helburua oinezkoak erabiltzeko diren guneak era nabarmenean hobetzea da, espaloiak gaur egun oso estuak baitira eta zoladura hondatuta baitago”.

HAINBAT KIROL TALDEREN EMAITZAK JASOTZEKO SMS DOAKO ZERBITZUA

Udalerriko goi mailako taldeen gaineko kirol informazioa duten SMS mezuak jasotzeko, Udalak bere web gunearen bidez eskainiko duen doako zerbitzua martxan da.

Informazio gehiago: www.getxo.net/kirolak

san inazio

autoeskola

1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP

baimenak

Telletxe 13 / Tf. 94 460 00 45

ALGORTA

Garaizar

barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net

Illeta kalea 1 • ALGORTA

Torreña 2

48990 ALGORTA

94 491 12 71

irati.algorta@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

Iñaki Ardanza LLano > 1970eko Getxo traineruaren patroia

“Orduan bogalari asko eta trainerua falta; orain trainerua bai, baina bogalaririk ez”



Argazkian, Getxo-ren patroia izandakoa. Algortako San Nikolas de Bari elkarteko trainerua izan zen Getxo

Getxo izeneko lehenengo trainerua 1970 aldera ureratu zen, Iñaki Ardanza izan zuen patroia eta hurrengoak ziren bogalariak: Miguel Perez, Victor Fernandez, Luis Maria Suarez, Jose Ramon Fernandez, Juan Luis Madariaga, Javier Fernandez, Jon Lazaro, Jaime Fernandez, Jose Ignacio Gutierrez, Ramon Isasi, Juan Jose Galbarriatu, Angel Mari Astorki, Txomin Gezuraga eta Marcos Bretos (entrenatzailea ere bazena)

—Zelan “jaio” zen Getxo trainerua?
—Gerraosteko lehenengo trainerua izan zen gurea. Bateletan eta trainerillatan ondo genbiltzan eta trainerua gura genuen, baina sosik ez. Orduko Algortako (arraun elkar-teko) presidentea Jose Luis Real de Asua zen, presidenteordea Joaquin Bilbao, eta alkatea Pedro de Zubiria y Garnica. Azken horrek erosi zigun trainerua, 2. eskukoa, Portugaleteri erosia. Gure taldean Leioako bogalariak ere bazeudenez, Real de Asuak Leioako alkate Churrucagaz berba egin eta arraunak ordaindu zizkigun hark. 1970 aldera izan zen hori, bizpahiru urtez ibili ginen traineruagaz, ez genuen lorpenik ia lortu; Zierbena zen indartsuena. Gero

bogalari batzuek arrauna utzi zuten, beste batzuk beste klubetara joan; beste zuzendaritza bat sartu zen, beste izen bat...
—Zelakoa zen arrauna orduan?
—Ez ziren antolatzen gaur beste estropada, oso gutxi, eta partehartzea gonbidapen bitartekoa zen; gu, berbarako, Santoñara eta Santanderrera joan ginen. Orain bada-bil hemen lehenengo ospetsuen talde bat traineruan, esango nuke orduko batzuk ere badabiltzala, ziurrenik orduan baino estropada gehiago dituztela! Bizkaiko 3. lotu ginen 1970ean, hurrengo urtean garaile bateletan eta trainerilletan, eta 3. Donostiako Espainiako txapelketan.
—Eta gaur jarraitzen duzu arrauna?

—Bai, ba. Baina asko aldatu da, den-denean: material, metodo, ekipamendu, prestakuntza e.a. Orain gehiago eta hobe dute. Lehengo arraunakaz gaurko askok ezingo luke bogatu! Pisu itzela zuten, arraunaren luzeragatik-eta orekatzeko toletan beruna jarri behar zen, pisua gutxitzeko. Patroiak eroaten zuenak arbola emoten zuen, edo Iberdueroren postea! Ordainsaririk ere ez geneukan; estropadaren batera joatean, genion: “zenbat aterako dugu? Gastuentzako beste, bai?”. Orain telamarinera irabazten dute! Eta urte osoan dabiltza, lehen udaldian baino ez. Lehen gogorra zen, eta

«Lehengo arraunakaz gaurko askok ezingo luke bogatu!»

ezberdina. Gure traineruak egurrezkoak ziren, gaurkoak zuntzezkoak... Eta pabilioi barria? Gu, entrenatzeko, korrika egiten hondartzara! Lanetik ere irten behar izaten genuen estropadagatik, batzuei ez zieten uzten... Dena dela, orain ez dago zaletasunik, edozein kiroletan! Esan egiezu arratsaldeko zortzietan joan behar dutela entrenatzera, bai zera! Etxera goizeko zazpitan heltzen badira, zelan jaikiko dira goizean goiz arraunerako? Bizimodua aldatu da. Arazoa tabernak dira; gure garaian hamarretan ixten zuten eta nora joan ez genuenez, denok etxera; orain irten egiten dira hamarretan! Gure garaian bogalari asko ginen, baina trainerua falta; gaur traineruak badituzte, baina arraunlariak falta!
—Eta Getxo traineru barria, zer?
—Ilusioa egin dit, babesa eman nien. Udalak arraunari 6 pezeta ematen badio, Getxo Arrauni emango dio guztia, edo seitik bakarra gainontzekoei. Baina batzuek ez dute gura izan. Futbolean Getxo eta Arenas artean gertatzen denaren antzekoa da hau. ○

Haur Zine Jardunaldiak

Hilaren 17, 18 eta 19an goiz eta arrastiko ordutegian eskainiko dira filmak



Asterix Olinpiar Jokoetan filmaren irudia

xxvi. Haur Zine Jardunaldiak prest dauzka Kultur Etxeak. Aurten hiru film eskainiko dituzte, baina Getxo Antzokiko lanak direla eta, emanaldiak Areetan izando dira.
Jardunaldien barruan emateko aukeratu dituzten pelikulak ondorengo hiru hauek dira: *Wall-E*, *Asterix en los Juegos Olimpicos* (Asterix Olinpiar Jokoetan) eta *Kung-Fu Panda*. Dirudienez, hirurak gaztelerazko bertsioan eskainiko dira; eta lehenenengoa eta azkena animazio motako filmak dira.
Aipatutako hiru film horiek hurrenez hurren apirilaren 17an, 18an eta 19an

emango dituzte. Barikukoa izan ezik (arratsaldeko ordutegian baino ez dute eskainiko, 17:00etan), gainontzekoak goiz eta arratsaldeko ordutegian egongo dira ikusgai, hau da *Asterix en los Juegos Olimpicos* edota *Kung-Fu Panda* ikusteko goizeko hitzordua 12:00etan izango da eta arrastikoa 17:00etan.
Esan legez, aurtengo Haur Zine Jardunaldien egoitza ez da egongo Algortan, Areetan baino, Andres Isasi Musika Eskolan, hain zuzen. Bestalde, ohi legez, haur zine emanaldietan pelikula ikusteko sarreraren prezioa 2,10 eurokoa izango da. ○

ANIZTASUNAREN ALDEKO ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO JARDUNALDIAK


Pasa barri den marxoaren 21eko Arraza-diskriminazioaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, Getxoko Udaleko Immigrazio eta Kulturartekotasunerako sailak eta udalerriko hainbat elkarte, Aniztasunaren aldeko eta Diskriminazioaren kontrako V. Jardunaldiak antolatu dituzte. Aldizkari hau argitaratu orduko horietako batzuk gauzaturik egongo dira; ostera, oraindino ere badago zenbait ekitalditan parte hartzeko aukera, berbarako: hilaren 3an World Cafe ekimenetik (iazko abenduan egin) ateratako ondorioen aurkezpena (Erromoko Nagusien Etxea eguneko zentroa; 19:00) eta kulturarteko jaia (Eskola plaza -Hizkuntza Eskola Ofiziala- Areeta; 18:00).

ERROMO ETA AREETAKO LIBURUTEGIAK GOBELA KIROLDEGIAN UDAGOIENEAN

Santa Eugeniako kultur zentro barria eraikitzen duten bitartean, Erromoko eta Areetako udal liburutegiak Gobela kiroldegian lekutuko dituzte. Zerbitzu barri hori uda ostean martxan ipintzea aurreikusi dute udal arduradunek. Guztira 430 metro koadro izango duten areto bi egongo dira, eta bertan 35.000 liburuk osatutako funtsa.

JAZZALDIAREN TALDE LEHIAKETAKO PARTAIDEAK AUKERATUTA

Dagoeneko aukeratu dituzte 33. Getxoko Jazzaldiaren (uztailak 1-4) Talde Lehiaketan parte hartuko duten taldeak, ondorengo hauek: Tobias Meinhardt Quartet (Suitza), Vitale-Magatelli-Winfield Trio (Italia-Danimarka), Points (Txekia) eta Biotone (Polonia). Aurten Europako 14 herritako 53 taldek bidali dituzte euren lanak Lehiaketan parte hartzeko.



Basurto
Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • Tf. 94 460 71 62 / Telletxe 15 • Tf. 94 460 42 44 • **ALGORTA**

Maite Franko > Ipuin kontalaria

“Normalean beldurrezko ipuinak lagungarriak izaten dira umeei arazoei aurre egiten ikas dezaten”

Joan den martxoaren 17an, Maite Franko ipuin kontalaria izan genuen Leioako liburutegian, umeei zuzendutako emanaldia eskaintzen. Irundarrak bost urte daroaz historien munduan murgilduta, eta ez da une batez ere geratu. 2004an hasi zenetik, 900 saio eman ditu Euskal Herri osoan, baita mugatik kanpo ere. Ipuin kontalaria izateaz gain Frankok antzerki, bikoizketa, literatura eta irakasle lanak ere egiten ditu.

—Umeei zer aurki dezakete ipuin kontalarien emanaldian?
—Denetarik. Kontalari mota asko dago, batzuk tradizionalagoak gara, beste batzuk antzerkigintzaren munduan egiten dute lana... Bestetik, atrezzo eta mozorro aldetik gehiago erabiltzen dituztenak topa ditzakegu. Ni aipaturiko azken zirkulu horretan mugitzen naiz eta Leioan esaterako, nahasketa egin nuen; alde batetik, ipuina kontatu eta bukaeran, dramatizazioa edo antzezkiuna sartu nuen.
—Normalean nola aukeratzen dituzu istorioak?
—Orokorrean, umeei ezagutzen ez dituzten istorioak kontatzen saiatzen naiz, pertsonaia gutxiokoa, nahiko linealak, sinpleak eta hun-



Maite Franko , martxoaren 17an Leioako emanaldian

kigarriak. Batzuetan istorioak sortu egin ditut, baina gehienetan testu egokituak izaten dira. Azken hauetatik testu zati bat hartzen dut eta nire erara moldatzen dut. Ipuin herrikoiak, tradizionalak, alegia, izaten dira normalean erabiltzen ditudanak. “Inork” sortu ez dituenak ere hartu izan ditut erreferentziaz.
—Noiztik datorkizu ipuinak kontatzeko zaletasuna?
—Txikitatik. Nire amak askotan kontatzen zizkigun ipuinak. Gu zazpi anai-arreba gara

eta garai hartan, asko dibertitzen ginen, beldurrezko istorioekin batez ere.
—Haurrei normalean gustatzen al zaizkie beldurrezko ipuinak?
—Bai, asko. Gainera duten arazoei aurre egiten laguntzen diete, baita gauzei irtenbideak ematen ere.
—Nola dago kontagintza Euskal Herrian?
—Duela gutxi, kontalariok elkarte bat sortu genuen. Ni bost urtean ez naiz geldi egon. ○

Isunak gorotzengatik

Txakurren kakak batzen ez dituen biztanleak 600 euroko isuna jasoko du oraindik aurrera



Kakak batzen ez dituen biztanleak, 30 eta 600 euro arteko zigorra jasoko du

Leioako Auzolan programako zortzi lagun, kaleko txakurren gorotzak direla eta, jaso dezaketen isunaren barri ematen aritu dira azken hiru hilabeteotan. Horretarako jagoleek txakurren jabeek txartel hori bat eman diete.
Orain barriz, aipatutako txartel horiaren ordean zigorra jarriko diote herriko kale, plaza eta berdeguneetatik animalien kaka batzen ez dituen biztanleari. Horretarako, jagoleek telefono bat izango dute, eta txakurren jabeetako batek gorotza jasotzen ez duela ikusten badute Leioako udaltzainei deituko diete, isuna berehala jartzeko. Eneko Arruabarrena alkateak dioenez “ *zigorra 30 eta 600 euro artekoa izan daiteke*”.

Arazo hau saihesteko asmoagaz, 1.653 gutun bidaliko dira txakurra erroldatuta duten etxe guztietara. Honegaz udaltzaingoa isunak jartzen hasiko dela ohartarazi nahi da. Hala eta guztiz ere, abereen jabeen datuak Bizkaiko Foru Aldundiak emanak direla eta, baliteke orain, hauetako baten batek txakurrik ez izatea, zehaztu du Arruabarrenak. Honegatik guztiagatik, alkateak eragozpenak barkatzeko eskatu die herritarrei. Horrez gain, berdeguneetan ehun burbuilo barri ipiniko dituzte kanpainaren nondik norakoak erakusteko asmoagaz. Euskarri guztiak gorriak izango dira.
Aipatzekoa da aurreko urtean udalak antzeko kanpaina bat egin zuela. ○

TOKIKO INBERTSIOETARAKO ESTATU FONDOA

Leioako Behargintza hasi da, dagoeneko, Tokiko Inbertsioetarako Estatu Fondoari kargatuta egingo diren obra eta zerbitzuetara enpresa adjudikaziodunek langileak kontratatzeke eskabideak batzen. Hauek astelehenetik ostiralera egin ahal izango dira apirilaren 3ra arte, Mendibile kaleko Behargintzan. Bete behar diren baldintzei dagokienez, Leioan erroldatuta eta langabezian egotea.

48 KONPAINIAK PARTE HARTUKO DU UMORE AZOKAKO 10. EDIZIOAN

Aurtengo Umore Azokak 472 lan aurkeztuko ditu maiatzaren 21, 22, 23 eta 24an. Ikuskizun horietatik, 30 Euskal Herritik helduko dira, 256 Estatu espainiarretik eta 186 atzeritik. Guztietatik 48 konpainia izango dira, Leioako bazter guztiak antzerkiz eta umorez beteko dituztenak aipatutako lau egunetan zehar. Ekimen honek aukera parebakoa eskaintzen du konpainiak, banatzaileak, programatzaileak, prentsa eta ikuslegoa batzeko eta antzerkiaz gozatzeko.

LAMIAKOKO IGOGAILUAREN OBRAK BARRIRO ERE MARTXAN

Leioako Udalak Lamiakoko igogailua berreskuratzeko akordioa sinatu du Eusko Jaurilaritzako Etxebizitza Sailagaz. Proiektua geratuta zegoen etxebizitzaren krisiagatik. Gasteizko exekutiboak enpresa pribatu batek egin behar zuen lana egingo du, azken honek Txorierri auzoan 48 etxebizitzaren truke igogailua jarriko zuela ziurtatu zion Udalari. Igogailuaren obrak datorren urtean hasiko dira, eta 35 metroko desnibela gaindituko du 100 metroko ibilbidean zehar. Udalak 1,5 milioi euro ditu obrentzako eta Gasteiz, barriz, aldapa urbanizatzeko lanak egingo ditu.

udondo

taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK

THE BEST

LINE-ENERGY EFFICIENCY

ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK eta INPRESIO DIGITALAK egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

BETIKO

IKASTOLA

— 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.

— Ingelesa 4 urtetik aurrera.

— Frantsesa DBHn.

— Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), askaria.

— Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...

— Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94 464 23 64 / 94 464 33 07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Monica Martin > Erandioko kolortterapia tailerreko irakaslea

“Kolore batek pertsona bakoitzarengan sentrazio edo energia desberdina eragin dezake”

Monica Martin astrabuduarrak kolortterapia tailerra eskainiko du, datorren apirilaren 17an, Erandioko Antiguo Correos-en. Koloreakaz une oro harremanetan dagoen artista honen lehenengo kurtsoa izango da, baina hala ere, hamar urte pasatu ditu artearen munduan erabat murgilduta. Duela bost urte Moma eskulangintza tailerra ireki zuen, bertan arte kreatiboa lantzen du. Tailerra 18:00-21:00 izango da, apirilaren 6ra arte egongo da zabalik izena emateko epea.

—Zer dakar kolorterapiako tailerrak?
—Hasieran, koloreei buruzko azalpenak emango dira. Hau da, kolorea bere zentzu osoan, primarioak, sekundarioak, epelak, hotzak... zer diren azalduko dugu. Honegaz jendeak koloreei buruzko zerbait gehiago ezagutzea gura dugu. Tailerraren bigarren zatian, barriz, koloreen errealitateko izaerari egingo diogu so. Koloreak norberaren begiaren erretinara heltzen diren argiak dira, eta bakoitzak modu desberdinean interpreta-tzen ditu. Horregatik, kolore batek pertsona bakoitzarengan sentrazio edo energia desberdina eragiten du. Hau dela eta, kolortera-pian norberaren egoera animikoa hobet-zen saiatuko gara. Aipatutakoaz gain, ikas-



Monica Martin, Erandioko kolortterapia tailerreko irakaslea

taroan parte hartzaileei Lüscher test-a egin-
du diegu.
Proba honek, aukeratzen duzun kolore-
aren arabera, zure aldartearen nondik nora-
koaren barri emango digu.
—Kurtsoa nori zuzenduta dago?
—Koloreei buruzko interesa duten guztiei
zuzenduta dago. Badaude kurtso batzuk
kanalizatuagoak direnak, baina honetan,
edonork parte har dezake.
—Nola sartu zinen kolorterapiaren
munduan?

—Koloreagaz daukadan harremana Arte
Ederrak ikasi nuenean hasi zen. Denbora
pasatu ahala, gero eta interesgarriagoa irudi-
tu zitzaidan eta pixkanaka-pixkanaka nire
burua hezitzen joan nintzen.
—Zenbat denbora daroazu kolortterapia
ikastaroak eskaintzen?
—Kolorterapiagaz orain hasi naiz, baina
koloreakaz beharrean denbora gehiago
daroat. Orain dela bost urte Eskulangintza
tailerra ireki nuen Astrabuduan. Eta duela
hamar urte Arte Ederrak ikasi nuen. ○

‘Zainduz’ programa abian

Erandioko udalak hirugarren adineko pertsonen bizimodua hobetzeko egitasmo barria sortu du



Egitasmoa pertsona nagusiei zuzenduta dago

Erandioko Udaleko Gizarte Ekintzarako sailak ‘Zainduz’ programa barria abiatuko du. Ekimen honen helburua hirugarren adineko pertsonen bizitza maila hobetzea da eta horretarako, zerbitzuen gehikuntza eta dependetzia egoerak ekiditea, edo hauek konpentsatzea bilatu gura dute udaletik.
Egitasmoa pertsona nagusiei zuzendu-ta dago, bai autonomoak direnei, bai dependetzia arazoak dituztenei, senitarte-koei, zaintzaileei, baita boluntario ibiltzen diren pertsoneri ere.
Programa honetako ekintza nagusietako bat profesionalak ez diren zaintzaileei zuzenduta dago, hauek muturreko egoere-

tan, pertsona ohean dagoenean edo komu-neko higie-neagaz laguntzeko, zer egin behar den ikasiko dute. Honegaz batera, lehen sorospen nozioak ere irakatsiko dira.
Halaber, sentsibilizazio kanpaina ipini-ko da abian interesatuta dauden pertsoneri, beraien senitartekoak behar dituen zainke-ten barri emateko.
Bestalde, ‘Zainduz’-ek laguntza psiko-logikoa eskainiko du gizarte isolamendua ekiditeko eta laguntza eskatzen ikasteko helburuagaz.
Honez guztiaz gain, nagusientzako ikastaro berezia prestatu dute, estresa sor-tzen duten egoerak, gurasoen lana dela eta; ilobak zaintzea adibidez, gainditzeko. ○

ERABILITA DAUDEN CD ETA DVD-AK JASOTZEKO GUNE BARRIAK

CD eta DVD diskoak birziklatzeko ekimena abiatu du Erandioko Udalak. Honen helburua ingurumenarekiko ardura areagotzea da, eta egitasmoa aurrera erodateko gaikako bilketarako hainbat puntu finkatu ditu: Altzaga liburutegia, Altzagako Behargintza eta Astrabuduko Josu Murueta kultur etxea. Gainera, konfidentzialtasuna bermatzeko asmoagaz, diskoetan bildutako informazioa ezabatzeko tresnak ere izango dituzte.

86 KE DETEKTAGAILU IPINI DITUZTE HERRITARREN ETXEETAN

Erandioko Udalak adineko pertsonak edo ez-gaitasun handiak dituzten pertsonen etxeetan 86 ke detektagailu ipini ditu. Urtarilaren 12tik 22ra bitartean 57 etxebizitzatara joan dira teknikariak, eta larrialdi kasurik izatekotan, ebakuaziorako azalpenak eman dizkiete etxekoei. Bestetik, oinarritzko segurtasun aholkuak, eta etxean suteak prebenitzeko eskuliburua ere eman zaie.

ERANDIOKO UDALAK URAREN KONTSUMOA OPTIMIZATU DU

Udalak uraren kontsumoa optimizatuko du hainbat udal instalaziotan. Horretarako, hidroefizientzia energetikoaren gainera auditorioa egin du uraren kontsumo mota guztiak aztertzeko, komunak, dutxak, konketak, igerilekuak, ureztaketak... Altzagako kiroldegia, eta Erandio Goikoako Arteaga futbol zelaiko eta San Jose egoitzako instalazioak aztertu dituzte, besteak beste. Astrabuduko kiroldegian ere egun batzuk barru egingo dute era horretako azterketa. Egoera aztertu eta beharrezko barrikuntzak egin ostean, udalak 5.095 euro aurreztuko ditu.

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Basolanak

• Zuhaitzen landaketa
• Podak
• Itxierak
• Garbiketak
• Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13
F. 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Mobila
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

*Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak*

Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**



www.arlan.biz

2008AN EGINDAKO
LANAGAZ JARRAITZEKO,
MARTXAN DA SOPESEX

Aurten ere Sopesex sexu aholkularitza zerbitzua martxan da. Hamalau eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendutako ekimen honegaz neska-mutilei bururatzen zaizkien zalantza eta galdera guztiak argitzeko aukera izango da. Egutegi barria joan den urteko esperientzia eta egindako lana jarraitzeko asmoagaz dator. Galdera guztiak epostaz (sopesex@sopelana.com) edo messenger bidez (sexaholkuak@hotmail.com) egin daitezke, edota zuzenean Igorregaz, zerbitzuaren arduraduna, telefono honetara deituta: 94 676 17 43. Gainera, antolatzaileek estreinatu duten foroan ere Sopesex zerbitzuak bere lekua dauka gazteei bururatzen zaien galdera guztietarako. Egutegiari dagokionez, apirilaren 24an izango da hurrengo hitzordua, eta datozen hilabeteetan birritan izango da, abuztuan izan ezik, ez baitago zerbitzurik.

JENDEAREN LAGUNTZA
SOPELAKO ARGAZKI
LIBURU BAT OSATZEKO

Sopelako Udalak, herriari buruzko argazki liburu bat plazaratzeko asmoz, biztanleei laguntza eskatu die. Horretarako, herritarrek Sopelari buruzko dituzten argazkiak batu beharko dituzte eta antolatzaileei utzi. Irudi guztiak XIX. mende hasiera edo amaieratik 2006 urtea bitartekoak izan behar dira. Gainera, argazkiakaz batera, bertan azaltzen diren pertsonen izenak, eta erretratua ateratako urtea zehaztu behar dute interesatuek. Lekua bada, non den zehazki eta data ere idatzi beharko dute. Libururako eskatzen diren argazkiak herri panoramikak, jendea jaietan edo edozein elizkizunetan ateratakoak izan behar dira. Erretratu guztiak beren jabeai itzuliko zaizkie. Proiektua DEIA egunkariaren laguntzagaz egiten ari dira.

Harremanetarako: 635 285 602
(Sergio Fernandez)

LAIK
Taberna

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

Kotxeak saltzea debekatuta

Plenoan onartzen bada “Talde antolatuek” ezin izango dituzte kotxeak Sopelan saldu



Modu partikularrean autoa saldu gura dutenek aukera izango dute

Apiriletik aurrera zenbait “*talde antolatuk*” ezin izango dute beraien kotxeak Sopelako hirigunean eta hondartzetan salmentan utzi. Horrelaxe gerta daiteke, 2005ean udaleko plenoan onartutako trafiko ordenantza aldatzea onartzen bada.

Antza denez, era “*ilegalean*” aritzen diren talde hauek kotxe mordoa uzten dituzte salgai Sopelatik “*nabaritzen da kotxe asko dau dela, denak telefono zenbaki berargaz*”, azaldu zuen Imanol Garai, Sopelako Udaleko alkatetik. Hau dela eta, hurrengo plenoan onartuz gero, isunak jartzen hasiko zaizkie kaleetatik salmentan dauden kotxeen jabeai.

Dena den, modu partikularrean norberaren autoa saldu gura duen oro lasai egon daiteke; izan ere, zigorrak talde hauei zuzenduak egongo dira. Horretarako, kotxea partikular batena ez dela ziurtatzeko, jarraipena egingo da.

Garaik azaldu digunez, “*anazo hau OTA ez dagoenean sortzen da*”. 2005ean OTAri buruzko ordenantza onartu zen, 2007an kendu zen arte. Talde hauek bilatzen dutena era merkean kotxeak saltzea da. “*Getxon ere anazo bera izan zuten, Udalak neurriak hartu zituen arte*”, bertan saltzen ziren autoak Sopelara ekarri zituzten. ○

Iñaki Zugazaga > Margolaria

“Orokorrean nire ideietan inspiratu naiz obra hau burutzerako orduan”



Iñaki Zugazaga

Iñaki Zugazagaren ‘Gloria’ izeneko obra egon da ikusgai Sopelako Udaleko erakusketa aretoan. Artista honen erakusketa 30 lan figuratibok osatutako bilduma da, eta laster Algortako Kultur Etxean ere ikusi ahal izango dugu.

Zugazagak hamabost urte daroatza margotzen, hamazortzi urtegaz hasi baitzen. Ez du Arte Ederrak ikasi, beraz, margogintzan dituen ezaguerak bere kabuz bereganatu ditu, apurka-apurka, Bilboko Arte Clasico estudioan urteetan ibili ostean.

—Zer topa genezake erakusketan?

—Orokorrean arte figuratiboak osatutako obra. Eskulturak eta tribalak ere topa ditza-kegu bertan.

Bestetik, obra guztiak kolorez eginda daude, eta pintura akrilikoakaz lan egin dut, bat izan ezik, oleoz eginda dagoena. Aerografia tresna ere erabili dut.

—Azal dezakezu zer den aerografia?

—Lainoztatutako pigmentua ateratzen duen tresna da. Pintura depositoaren barruan sartzen duzun pistola baten modu-

ko tramankulua da, sprai baten modukoa.

—Zein izan da zeure inspirazio iturria obra hauek burutzerako orduan?

—Nik atera ditudan ideietan ispiratu naiz, baita pinturari buruzko liburu eta Bilboko argazki batzuetan ere. Frank Faceta artista-ren liburua da horietako bat, adibidez.

—Zerk bultzatu zintuen margolari izatera?

—Asko gustatzen zitzaidan mundu hau. Bai pinturak, eta bai eskulturak, deigarriak iruditu zaizkit betidanik.

—Arte Ederrak ikasi barik sartu zinen arte-

« ‘Gloria’-n nire artea
garatzeko modua islatu
gura dut gehienbat»

aren munduan, nola hasi zinen?

—Hasieran Bilboko Arte Clasico estudioan eman nituen eskolak, eta gero nire kontura jarraitu nuen.

—Nola definituko zenuke zure artea gara-
tzeko modua?

—Arte klasiko eta figuratibo bezala defini-
tuko nuke. ○

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER
DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

BIDEGORRIAREN
AZKENEKO ZATIA
ESTREINATU DA

Udalak Berangoko bidegorriaren azken zatia estreinatu zuen martxoan. Honek etorkizunean Getxo eta Sopelako hondartzakaz lotzeko aukera emango du. Txirrindulentzako bidea, gainera, herriko kale nagusietatik igaroko da, Simon Otxandategi eta Sabino Aranatik, alegia. Bestetik, Moreaga auzoa eta Osasun Etxeagaz ere komunikatuta dago. Zati honek lau bider handituko du Berangon dauden bidegorri kopurua eta prest dago Sopelako oinezkoentzako zubiagaz bat egiteko.

ARANE ETA BESTE UME
PRESOEN ESKUBIDEAK
ALDARRIKATU DITUZTE

Hamar urte pasatu dira Irantzu Gallastegi berangoztarra atxilotu eta espetxeratu zutenetik; horren harira, alaba Arane eta gainontzeko ume presoek eskubideak aldarrikatu dituzte auzokide batzuk. Herriar hauek Gallastegiren alaba beste umeakaz egoteko, euskaraz berba egiteko eta bere hezkuntzarako pairatzen dituen arazoen barri eman zuten; eta honegaz batera, ama presoak alkarregaz egoteko aukera aldarrikatu dute. Irantzu eta Arane joan den martxoaren 9an lekuz aldatu zituzten Madrilgo Soto del Realeko espetxetik A Coruña-ko Curtisera. Xabier Garcia Gaztelu, “Txapote”, Gallastegiren gizona eta Araneren aita barriz, Pontevedrako A Lama espetxean dago.



JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO



AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK

ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

Umeentzako jarduerak

Gaztetxoentzako mota guztietako jarduera kulturalak eta txangoak aurtengo Aisigunean



Jardueren azkeneko egunean umeek Cabarceno parkea ezagutzeko aukera izango dute

Berangoko gaztetxoek badaukate ondo pasatzeko aukera apirilaren 14an hasi, eta 18an amaituko den Aisigunea 09 programazioagaz. Lau urtetik hemeretzi urte bitarteko berangoztarrek mota guztietako jarduera kulturalak eta txangoak egin ahal izango dituzte ekimen honi esker.

Programa adin taldetan banatuta dago eta gazteek Hego Amerika, Txina, Afrika eta Berango hobeto ezagutzeko joko eta tailerretan parte hartu ahal izango dute. Ekintzak, adinaren arabera, herriko Kultur Etxean eta Gaztelekuan izango dira, besteak beste. Gainera, azkeneko egunean Cabarcenora

txangoa prestatu da, astean zehar landuko diren herrialdeetako animaliak ezagutzeko. Aipatzekoa da, bertan egingo diren ekintza guztiak euskaraz izango direla, eta plaza mugatuak direnez, zozketa bidez esleituko dira martxoaren 30ean, onartuen zerrenda hurrengo egunean argitaratuko da.

Honez gain, Aste Santu honetan zabalik egongo da ludoteka, lau eta zazpi urte bitarteko haurrentzako; eta haur liburutegia, lau eta hamairu urte dituzten haurrei zuzenduta. Ordutegiari dagokionez, ludoteka 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik eta Haur liburutegia barriz, 17:30etik 19:30era. ○

Iñaki Gilisasti > Urduliz aldeko berba lapikokoa

“Uribe Kostako jatorri duen euskara agertzen da korpus modure”



Iñaki Gilisasti

Martxoaren 12an 2003an berrargitaratutako liburuaren jendaurreko aurkezpena egin zuen Iñaki Gilisastik euskaltegiko ikasleakaz eta lagunekaz. 1990. urtean hasi zen Urduliz eta inguruko berbak batzen, eta horregaz guztiagaz *Urduliz aldeko berba lapikokoa* liburua osatu zuen. Hori osatzeko, www.lapiko.com web orria ipini du abian; liburuan batutakoak aurki ditezke bertan, baita audioak ere.

—Noiz eta zergatik hasi zinen beharrotan? —1990 aldera nik burutzen dot nire beharra, baina ez zen egon liburu formatu baten pentsata, 7.000 esalditik gora erabili genituen etxeko euskararen hustuketa egiteko. Hori guztia, mp3an grabatuta neukan. Orduan pentsatu neban “lexikoia” egitea, hiztegia ezin jako deitu. 1997an lehenengo argitalpena egin nuen, baina akats askogaz eta osorik plega barik. 2003an egin nuen 2. edizioa, orain aurkeztu dudana Korrikari begira. Liburua adiskidantza zaharren kon-

testuan kokatu behar da; sasoi hartan Urdulizko euskara taldean bost urtez jarraian egin genduzan jardunaldi batzuk Iñaki Gamindegaz. Hau guztia, ez zan izango giro horretan ez bazan. —Zer aurki daiteke liburuan? —Neu ibili naz etxean darabildana plegau gurean, baina etxe batetik bestera aldaerak eta aberastasun sano diferenteak dire.

«Kantak, berba jokok, olerkik, erresuk, olgeta letrak, esapidek...»

Kantak, berba jokok, olerkik, erresuk, olgeta letrak, esapidek... Batu barik asko egongo da. Uribe Kostako jatorri duen euskara agertzen da korpus modure. —Zer metodologia erabili duzu? —Edozein hizkuntzatan ikasi dozune plasmateko lana etxekoa dozu. Ordenadore aurrean mila ordu sartu eta ateratzen jatzu. Neure familia zabalekoak hartuz egin dot.



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Ajuria
taberna

Andres Cortina 2

ALGORTA



Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



VIEJO CAFE

kopak eta
giro jatorra

Alangobarri 4,Tf 94 460 30 03
ALGORTA

AUTODEFENTSA ETA
MAKILLAJE IKASTAROA

Urdulizko Kultur Etxeak autodefentsa eta makillaje ikastaroa antolatu ditu. Izena emateko epea zabalik dago jada eta ikastaroak taldea sortzen denean hasiko dira; beharrezkoa bada, talde bat baino gehiago osatuko dituzte. Izena eman, zein informazio gehiago gura duenak, Kultur Etxera (Aita Gotzon 16 bis) hurreratu edo 94 676 36 31 telefonora deitu baino ez du.

UDAKO GAZTEAK
LANKIDETZA PROGRAMA

2009ko Euskadiko Gazteak Lankidetza programan izena emateko epea zabalik dago jada. www.gazteaukera.euskadi.net web gunean aurki daitekeen formulario elektronikoa bete behar da zerrendan sartu ahal izateko. Web gune berean, parte hartzaileek onartu eta bete beharreko konpromisoak eta beste hainbat datu interesgarri aurkitu daitezke.

KUTSADURA FEKAL
LARREGI PLENTZIAN

Azti-Tecnalia itsas biologia ikerkuntza zentroak egindako azterketaren arabera, Plentzia, Mundaka eta La Arenako hondartzek hondakin fekal larregi dituzte eta horrek, 2015ean ezarriko den ur kalitatearen lege barria ez betetzera eroan ditzake. Itsasadarreko hondakinak zuzenean jasotzen dituzte aipatutako hiru hondartzek, eta horrek kutsadura fekal maila altua izatera eroan ditu. Arazoa konpontzeko behar egingo dutela adierazi dute Osasun Sailetik.

MANKOMUNITATEA

Laborantza ekologiko hastapen ikastaroa



Ikastaroaren zati praktikoa Urdulizko ortu partikular batean emango da

Nekazaritza biologikoak bizitzaren erritmo naturalak errespetatzen ditu eta produktuen kalitatea, zein pertsonen osasuna bilatzen ditu. Lurrak ematen dizkigun produktuak lortzea ahalbidetzen digu, kalte larrikirik eragin barik. Uribe Kostan geroz eta ugaria-goak dira lur zati txiki bat daukaten etxebizitzak. Horietan ortu txikia sortzeko eta barazkirik ohikoenak lantzeko modua erakusteko eta nekazaritza ekologikoaren oinarritzko galderei erantzuteko, laborantza ekologiko hastapen ikastaroa antolatu du

Mankomunitateak. Hiru modulu teoriko eta praktiko izango ditu. Iraileko eta azaroko bariku eta zapatuetan egingo da. Zati teorikoa Mankomunitatearen instalazioetan egingo da, eta praktikoa Urdulizko ortu partikular batean. Plaza kopurua mugatua izango da; izena emateko orria www.uribekosta.org web gunean eskura daiteke, eta Mankomunitateko bulegoetan entregatu behar da. Nahitaezkoa da Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako batean erroldatuta egotea. ○

Apr. 1 - Apr. 17

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

URDULIZ

► **Pintura erakusketa Florencio Mailoren eskutik.**
Urdulizko Kultur Etxean.
Apirilaren 1etik 7ra.

GETXO

► **Esperanza Rodriguez Mansoren oleoak.** Algortako erakustaretoan, Apirilak 5, domeka. Orduetgia: 10:00-13:00 eta 18:00- 21:00 astegunetan eta 10:00-13:00 zapatuetan.
► **Javier Nieto Puertas-en oleo eta akriliko erakusketa.** Algortako erakustaretoan, apirilaren 4ra arte, zapatua. Orduetgia: 10:00etatik 13:00etara.
► **Sarayaku herria: Petroleren aurka.** Erromoko aretoan, apirilaren 7ra arte, martitzena. Orduetgia: 10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

LEIOA

► **Remapping Lamiako erakusketa.** Leioako erakusketa aretoan. Apirilaren 13ra arte. Astelehenetik barikura, 10:00etatik 20:00etara. Zapatuak eta domekak 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

ERAKUSKETAK

LEIOA

► **Korrontzi**
Kultur Leioan. Apirilak 3, barikua. 21:00. Sarrera: 10 euro.

GETXO

► **Kontzertua: Jose Antonio Urdiain (Tenorea) eta Pedro Guallar (organo jolea).** Algortako Trinitarioen elizan. Apirilak 3, barikua. 20:15.

► **Aste Santua**

La Pasión antzezkizuna

Aste bat baino ez da falta Aste Santua iristeko eta beragaz batera Berangon ospatzen den La Pasión antzezkizuna. Ekimen erlijioso honek Jesusen bizitza ezagutarazteko helburuagaz jaio zen duela 29 urte. Honegaz batera, jendea ekimen kultural bategaz gozatzeko aukera izatea bilatu gura dute antolatzaileek. Argi eta soinuazko espektakulu honetan 250 pertsona inguru aritzen dira lanean aurreko urteko irailetik dena ondo prestatzeko. Guztira hogeai eszena izango dira Udaletxearen inguruan, Simon Otxandategi eta Elez-bide kaleetan, udalerriko plazan eta Dolores Agirrerren etxearen lorategian. Emanaldia eguna iluntzean ospatuko da Berangoko Antzerki Taldearen eskutik.

• **Non:** Berangon • **Noiz:** Apirilaren 10ean, 20:30ean.

ZINEMA

LEIOA

► **La duda**
Apirilak 4, 5 eta 6, zapatua, domeka eta astelehena. 20:00etan. Sarrera: 3 eta 4 euro.
► **El reino de los chiflados**
Apirilak 4 eta 5, zapatua eta domeka. 17:30ean. Sarrera: 3 euro.
► **Vete de mi**
Apirilak 7, martitzena. 20:00etan. 2e.

URDULIZ

► **El zorro ladron**
Polikiroldegian.
Apirilak 4, zapatua. 18:00etan. Sarrera: 2 euro.

GETXO

► **XXVI. Haur zinema jardunaldiak: WALL-E.**
Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Apirilak 17, barikua. 17:00etan.
Sarrera 2,10 euro.

ANTZERKIA

URDULIZ

► **Nora zoaz Txanogorritxu.**
Urdulizko Kultur Etxean. Apirilak 3, barikua. 18:00etan.

GETXO

► **¿Habeis visto mi grito?**
Luna Llena taldearen eskutik. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Apirilak 5, domeka. 19:00etan. 3 euro.

BESTEAK

URDULIZ

► **Bidaia Eurodisneyra**
Apirilak 9-13, eguena.

GETXO

► **Ipuin kontaketa: Kandelen Argipean taldearen eskutik,** Atsedenaldirako ipuinak. Algortako Kultur Etxean. Apirilak 2, 18:00etan.
► **Kontularien kluba**
Algortako Kultur Etxean. Apirilak 3, barikua. 19:00etan.

GORLIZ

► **Gazte Aktibo programaren barruan Mendi-Ibilaldia Ermuara.**
Apirilak 2, eguena.

URIBE KOSTA

► **Korrika 16**
Apirilaren 3an, 14:00etan hasiko da, Lemoizen.

► **Oporretan Txangora.**
Apirilak 14, 15 eta 16. Programa: Donostiako Kutxa espazio eta Aquarium-era bisita, El Pobal Burdinolara, Sopuerta Abenturara eta Areitx Soroa Baserri Eskolara.

BERANGO

► **Zaldi probak**
Udal probalekuan, Torrekolanda Herri Kirol taldearen eskutik.

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

KLIMATIZAZIOA

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategitar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tf. 94 668 15 51

Fax: 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz

ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



SANTA KOLOMA. Ibarrekoerota baserriaren ondoan dagoen basiliza

PIÑAGA. Kalea



Getxoko toponimia

Bizarra Lepoan euskara elkarteak eta Getxoko Udaleko euskara zerbitzuak udalerriko toponimia ezagutzeko helburuagaz 10 ibilbide gidatu antolatu ditu udabarrirako. Horiei esker, herriko hainbat txokoren sekretuak ezagutzeko aukera izango da. Izan ere, toponimiak gure hizkuntzaren eta herriko historiaren altxor garrantzitsuak gordetzen ditu bere baitan. Hona hemen horietako batzuk, lekuak eta izenak.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**

TANGORA. Etxea



ZUGATZARTE. Etorbidea



KATEA. Algortako etorbidea eta Telletxe arteko bidegurutzea



ABASOTA. Arrigunaga hondartza



KRESALTSU. Romo auzoaren benetako izena



MANTEKANE. Andres Kortina kalea



OTSOENA. Basagoiti, Aretxondo ingurua

URKIXOBASO. Maria Cristina parkea





Astondoko

arrantzaleak

Argazki ederra 154. aleko erdiko orrialdeotara ekarri dizuguna. Martxoko egun eguzkitsuetan, Astondoko moilara hurbildu ziren arrantza zaleak. Lasaitasun bila doazen kanaberadun gizon-emakumeen topaleku izan ohi da Astondo. Itsas haizea, olatuen zarata eta iluntzeko argi magikoa, animoak baretzeko osagai ezin hobeak dira. Tarteka arrainen batek amuari kosk egiten badio, oraindino hobeto. Leku eta denborapasa egokiak aukeratzen dakienak ez du psikoanalistaren beharrik izaten.

ASIER MENTXAKA

[berbetan]

Eugenio Gandiaga getxoztar askok ezagutuko du, herriko Kultur Etxeko buru izan baita 27 urtez. Orintsu laga du postua Manu Alkizaren esku, 63 urtegaz eta txanda-kontratuaren laguntzaz erretiroa hartu ostean. Asko aldatu da kultur etxea Eugenio hasi zenetik, 1982tik. Orduan hiru lagunek lan egiten zuten Urgull kaleko lokalean. Egun, hainbat auzotan daude kultur etxeak, eta Getxo Antzokia eta Erromoko Kultur Etxe barriak egitear daudela erretiratu da.

Eugenio Gandiaga

Kulturan badago erretiratzerik?

Testua: **Zuberoa Iturburu** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zelakoa izan zen Getxoko Kultur Etxearen sorrera?

—Ni sartu orduko bazegoen sortuta. Kultur etxe bakarra zegoen, Urgull kalean. Lehen udaletxe demokratikoak kultura bultzatzen hasi ziren garai hartan. Ni 1982an sartu nintzen eta hiru lagun baino ez ginen: liburutegiko eta administrazioko arduraduna, atezaina eta hirurok. Hortik aurrera, Udalak kultur eskaintza apurka-apurka zabaltzeari ekin zion.

—Hiru lagun baino ez, zelan konpontzen zineten?

—Ez zegoen internetik, ez ordenadorerik, ez sakelako telefonoa; uste dut faxik ere ez zegoela. Baina gauzak egiten ziren, irudime-nagaz eta oraingo gogo beragaz. Gutxi-eneko kultur eskaintza zen aurrekaria, eta jendea gogotsu zebilen kultur ekimenetan parte hartzeko; gure aldekoa zen hori. Teknologia barrien sorrera eta garapena bizi izan dugu, antolakuntza erraztu dute. Baina garai hartan edozein ekimen zen gertakari handia eta jendeak dena ematen zuen. Egoera eskasetik hasi eta apurka hasi gara.

Azkarra izan zen Udala Donostiako eta Gasteizkoen pareko jazz jaialdia egitea erabaki zuenean. Urratsez urrats egin litezke gauzak. Kontua ez da gauza lar egin eta itotzea; zerbait egin, finkatu eta gero jarraitu, hori da egin behar dena.

—Lehenengo kultur etxeetakoa izan zen Getxokoa, beste herrientzako adibide?

—Hori ezin dizut nik esan. Guk teoria jakin bat izan dugu beti: herritarrentzako ahalik eta lan onena egin, beraiek ordaintzen digute soldata, azken batean. Gauzak ahalik eta hoberen egiten saiatu behar da. Beste herriei baliagarria suertatu bazi-

“Garai hartan edozein ekimen zen gertakari handia, eta jendeak dena ematen zuen”

tzaien, primeran. Besteengandik ere ikasi dugu guk, inguruari begiratu eta ikasi. Getxoren beharrei eta gaitasunari egokitzen saiatu gara, ez dauka meritu gehiagorik edo gutxiagorik.

—Kultur eskaintza garatzen joan zaretela

esan duzu, hasieran bistaratzen al zenu-ten gaur egungo jarduerara iristea?

—Alde batetik, bai. Getxo oso sakabana-tuta dago, luzanga da eta desberdintasun geografiko handiak ditu auzoen artean. Garai hartan desplazamenduak zailagoak ziren, auzoan bertan egiten zen bizitza. Horregatik, kultur etxea deszentralizatzea erabaki zuten; kultura auzo guztietara hurreratzeko, eta auzo bakoitzak bere libu-rutegia eta elkarteak biltzeko lokalak izan zitzan. Areeta izan zen lehena, gero Erromo eta Andra Mari ondoren. Gero-ago San Nikolaseko liburutegi nagusia

hazi da eta auzoetako instalazioak garatu dituzte. Hasiera hartan Bartzelonako kul-tur etxeei begiratzen genien, eredu ziren auzoetan kultur etxeak sortu zituztelako, eta bai, etorkizunean horrela izango zela aurreikus zitekeen.



—Denetarik gertatuko zitzaizuen.

—Bai, beti gertatzen dira gauzak. Gutxi-
gertatu zaiguna ekimenak bertan behera
utzi behar izan da. Eguraldiak ere eragina
dauka. Kontzertuak denetarikoak egon
dira, eta normalean, handiena, txikiena eta
ezin egin izan genuenagaz oroitzen gara.
Dun Can Du taldearena suspenditu behar
izan genuen Portu Zaharrean, haize oso
handia zebilelako. Edo Faduran kontzer-
tuak egiten genituenean arazoak geneuzkan
jende asko eta asko zihoalako. Silvio
Rodriguezek jo zuenean sarrera eten behar
izan genuen, ez zirelako sartzen; kaltetuen
komisioa ere egon zen ondoren, baina beste
garai bat zen; jendea taula gainera igotzen
zen Silviogaz kantatzen.

Lehenengoetariko Blues Jaialdia Arrigunagako hondartzan egin genuen, baina zirimiriak jaialdia bertan behera uzten behartu gintuen. Karpak ipini genituen ordutik aurrera. Kontzertu onak egin ditugu eta pasadizo traketsak gutxienak dira.

—Laster Getxo Antzokia eta Erromoko Kultur Etxe barriak eraikitzen hasiko dira, lan erraldi biak; azpiegituretan diru asko xahutu, eta ekimenetarako dirurik gera ez daitekeela eman dezake batzuetan?

—Ez, ez. Azpiegiturak funtsezkoak dira. Orain arte antzerki arloan mugatuta geunden eta herritarrei ikuskizunak behar bezala eskaintzeko gabezia geneukan. Ezin ekar zitezkeen orkestra handiak, ballet ikuskizunak, operak, zarzuelak, ezta dekoratu handiagoak zeuzkaten lanak ere. Ekimenetarako dirua geratzearen kontuaz, beno, kontuan izan behar da antzoki barriak 700 eserleku izango dituela, oraingoak baino 300 gehiago. Hau da, ikuslearen ekarpena handitu, baina kostua berbera izango da. Eta unean uneko onena ekarri ahal izango da, mugarik ez da egongo, beno, aurrekontu aldetik bakarrik izango da muga. Erromoko Kultur Etxearen kasuan, kultur gune estilo barria egingo du Udalak. Elkarteen-tzako lekua izango du, asteko zazpi egunetan egongo da zabalik, egunean 10 edo

12 ordutan. Beraz, liburutegi eta sistema modernoek hornituko dute, areto nagusia ere edukiko du, 200 edo 300 lagunentzako. Entsegu lokalak eta zerbitzu komunak ere izango ditu, teknologia barriez hornituta, eta korreo, fax eta fotokopiagailu komunagaz. Azpiegitura oinarritzkoa da, bera gabe ezin daiteke ezer egin, eta gasta, askoz handiagoa liteke. Azpiegitura

“Azpiegitura oinarritzkoa da, bera gabe ezin daiteke ezer egin, eta gastua, askoz handiagoa liteke”

bi horiez gain, gurago nuke karpak muntatzen ibili behar ez izateko bestelako azpiegiturak ere izatea.

—Batzuek diote jaialdi handietan diru asko gastatzen dela, baina egunerokoan gutxi inbertitzen dela?

—Batzuetan niri esan didate Getxon diru asko xahutzen dela jaialdi handietan, baina egunero daude ekimenak herrian. Kontua da mediatikoki ez direla erakargarriak. Udaberriko kontzertuak, ipuin kontalaria, hasten direnentzako bereziki bideratuta dauden erakusketak... mediatikoki ez dira oso erakargarriak, baina egin, egin dira. Jaialdi handiak dira nabarmentzen direnak, baina horien kostua Euskadi mailan txikiena da eta ez diote ezer kentzen gainontzeko ekimenei. Beste herrietan, Bilbon adibidez, diru guztia BBK

“Kafe Antzokiak kostua izango du, baina rock musikarentzako lekua izan dugu, horretan eskas gabiltza eta”

Live jaialdian gastatzen dutela esatea bezalakoa litzateke. Egunkariei begiratu eta ekimenak egunero daudela konturatuko zara. Getxon ia egunero daude ekimenak, arlo guztietan: literatura, argazkigintza, musika... Esaterako, orain gutxi egin da I. Getxo Sound Festival, herriko taldeentzako laguntzez gainera; izan ere, hogeitertze

tik gora daroa kultur etxeak herriko talde-
ei laguntzen, dantza taldeakaz elkarlana...
Hori ez dute kentzen jaialdiek.

—Kafe Antzoki bat egiteko egitasmoa ere bazegoen, zertan dago?

—Horretaz asko ezin dizut esan, alkateari galdetu beharko diozu, baina nik uste benetako asmoa daukala proiektu hori gauzatzeko, nahiko helduta dagoela uste dut.

Alkatearentzako gazteena lehentasunezko kontua dela uste dut. Eta dakidanez, egitasmoagaz aurrera jarraitzen dute. Azpiegiturak kostua izango du, baina rock musikarentzako lekua izan dugu, arlo horretan eskas gabiltza eta. Güendolin aretoa itxi zutenetik zailtasun handiak izan ditugu rock musika egiteko, eta Getxo Antzokiaren agurra, beraianengan pentsatuz egin genuen, eserlekuak kenduz.

—Urteotan kritika asko jaso dituzu?

—Bai, guk ere hori eragin dugu. Kultur etxetik oso gertu egon da jendea, horrela behar duelako, eta horrela izatea eragin dugulako. Programazioa, zuzenketak eta ekimen guztiak jendeari entzunez egin ditugu. Normalean kritikatu egin ohi da gehiago zoriondu baino. Baina zoriondu ere egin gaituzte. Beraien iritzia ere eman

digute, eta eskertzekoa da, okerrak zuzentzeko balio du eta. Hori ere eskertzekoa da. Bestalde, zerbait egin gura duena laguntzen ere saiatu gara. Kultur etxera hurreratu da jendea ideiakaz, bai guk egin genitzan, bai beraiek egin zitzaizen. Azken horiek gurago izan ditugu beti, laguntzeko politika ibili dugu beti. Izan ere, interesgarriena da eki-

mena egitea, eta ez Udalak eta Kultur Etxeak egitea. Zenbat eta jende gehiago inplikatu kulturari, orduan eta hobeto, inguruan zabaltzen dutelako kultura.

Datorren hilabetearen liburuaren azoka egingo dugu, eta gisako azoken artean, herriko liburudendakaz bakarrik egiten den azoka da. Liburudendek bere jardueragaz jarraitzea interesatzen zaigu, kultur gunea delako bakoitza, eta kultura ahalik eta gune gehienetan egin dadila interesa-tzen zaigu, eta ez soilik kultur etxean. Horregatik ere laguntza eskaintzen diegu edozein ekimen antolatzen dutenean. Jendeak ere ulertzen du kultura ez dela bakarrik guk egiten duguna, jende guztiak egiten duela. Ikuslegoa da oinarria kultur ekimenetan, ikusleen konpliztaterik barik kultur etxeak zentzurik ez luke. Ideien sorburu dira guretzat.

—Izan ere, Kultur Etxea Udaleko era-

kunde autonomia da, baina zenbat dauka horretatik?

—Administrazio sistema nahiko geldoa da erabakiak hartzeko. Herriko erankunde autonomoek udal-egitura daukate, Udaleko alderdi politiko guztiek parte hartzen dute. Bizkortasun handiagoa daukate udal-administrazioko sistemak baino, eta horrek baliatzen du erabakiak

“Zenbat eta jende gehiago inplikatu kulturen, orduan eta hobeto, inguruan zabaltzen dutelako kultura”

azkarrago hartzea, batez ere azken momentuko kontuakaz. Alde horretatik dauka nolabaiteko autonomia, baina udal-erakundea da.

—Eta egindakoagaz asebeteta, ala egin gura,

baina ezin egin duzun zerbait badago?

—Beti daude gauzak, baina asetuta noa. Une gozoa da gainera, aipatu azpiegiturak abiatzekotan dagoelako Udala. Une oso garrantzitsua da, eta egindakoagaz pozik egoteko modukoa da. Bestalde, beti daude egin barik geratutakoak, baina orain ez ditut oroitzen. Orain kostatzen da egingo zait egoera barrira egokitzea. Urteotan pozik

ibili naiz, neure herrian bertan gustuko
zerbaitetan aritu naizelako. Gainera, lan-
talde bikainagaz egin dut behar, gustuko
dute lana. Emaizta herritarrek epaitu
beharko dute. ○

aldizkaria **etxean**

jaso gura baduzu



HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
 Kalea & zenb.....Herria.....
 e-mail.....Telefonoa.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro ☐ beste kopuru bat euro
 Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□

□□□□

□□

□□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tf. 94 491 13 37

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....

Kalea & zenb.....Herria.....

e-mail.....Telefona.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro ☐ beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito).

Kontu zenbakia (20 digito).

[illegible]



Hiritarrei segika

Munduko kaleetatik, hiritarrei segika ibiltzea gustuko du Hodei Torresek (Bilbo, 1983). Arte Ederrak ikasten ari da Leioako kanpusean, argazkigintza eta ikus-entzunezkoak espezialitatea. Sei urte pasa dira kamara lehenengoz hartu zuenetik; liburuetan eta interneten kuxkuxeatuz ikasi du dakiena, bere kabuz. Aurten Getxo Artan ikusi ahal izan ditugu bere lanak; Madrileko jaialdi baterako, eta Lekeitioko Zine eta Bideo Bilerarako ere aukeratu zuten. Azken hiru urteotan, Deustu aldean ibili da fabrika zaharretako arrastoak batzen. Baina, oraingoan, hirietako lagunak izan dira bere biktimak.

Argazkiak: **Hodei Torres**









I
*Iñakí
Bítxitégia*

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina
ALGORTA
 94 430 76 96

**GARRO?**

GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf.94 460 70

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

Hegoak-en urteko ekimena

Zineklubaren **Zinea eta HIESA** zikloa martxan dute daborduko



Los Testigos (André Téchine; Frantzia, 2007) filmako irudia

Ekinean 9 urte daroazan Hegoak elkar-
teak (gai, lesbiana, transexual eta bisexual-
en Euskal Herriko elkarteak) urtean zehar
garatzen dituen hainbat ekimenen artean
Hegoak Zinekluba dago. “Hausnarketari
eta kulturari eskainitako zinema gunea
da” Zinekluba, eta “GLBT (gay, lesbiana,
bisexual eta transexual) gaia lantzen duten
pelikulak gustuko dituzten pertsonentza-
ko bilgune puntua” da. Urtean zehar hiru
zine ziklo antolatzen dituzte, eta hitzor-
dua barikuetan dute 20:00etan Hego-
aken egoitzan (Maiatzaren 2a kalea 7,
beheko solairua ezkerrean, Bilbo). Ziklo
bakoitzean 6-9 pelikula emanaldiak
(azpiztituludun jatorrizko bertsiotan) egiten
dituzte, film zaharrak, zein garaikideak
izaten dira; zinema aretoetan egon dire-
nak, edota egon ez direnak; komediak,
dramak, musikalak... hainbat herrialde-
takoak eta “ikuspuntu anitzetakoak eta gay-
lesbo-bisexual-trans gaia eta proposamen-
en interesa komunean dutenak”.

Hala, prest daukaten hurrengo zikloak “Zinea eta HIESA” dauka izenburua

(martxoaren 27an hasi zen) eta maiatzaren 29ra bitartean 8 filmaz osatuta dago. Hurrenez hurren, ondorengoak dira ikusgai egongo diren pelikulak: apirilaren 3an *Las noches salvajes* (Cyrill Collard; Frantzia-Italia, 1992); apirilaren 17an *Los Testigos* (André Téchine; Frantzia, 2007); hilaren 24an *Sin bala mágica* (Jaime Sylla Paredes; Erresuma Batua, 2007); maiatza-

«Hegoak elkartearen Zineklubaren barruan maiatzaren 29ra bitartean 8 film eskainiko dituzte»

ren 8an *Philadelphia* (Jonathan Demme; AEB, 1993); maiatzaren 15ean *Vivir hasta el fin* (Gregg Araki; AEB, 1992); maiatzaren 22an *El gracioso de Felix* (Oliver Ducastel eta Jacques Martineau; AEB, 1995) eta maiatzaren 29an *Solo ellas... los chicos a un lado* (Herbert Ross; AEB, 1995). Sarrera doan da. ○

Informazio gehiago:
www.hegoak.com/cine.html

Flamenkoa Uribe Kostatik

Kandela taldea hainbat jatorritako taldekideek osatzen dute, baina **Leioan** sortu zen orain dela bost bat urte



Leioan emandako kontzertu eguneko (martxoak 20) argazkia. Informazioa: www.myspace.com/kandelarium

"Gaizka Baenak (gitarra) gogoko zuen flamenkoa eta bere kabuz hasi zen, Jose "Murci" Llorach (perkusioa) ezagutu ostean, alkarregaz zerbait jotzen hasi ziren, gero Juan Osaba "Juantxin" (gitarra) batu zitzaaien. Hemen flamenkoa jende oso gutxik jorratzen duenez, zerbait sortzea otu zitzaaien. Ni Gaizkaren laguna nintzen eta... Hala, arratsalde batez San Bartolomeko gure lokalean batu, eta beste barik, jotzen hasi ginen. Gaizkak alboko tabernakoak ezagutzen zituen eta lauzpabost kanta eta pare bat bertso prestatu eta horrela hasi zen dena", azaldu du Ander Unzagak (pianoa). 2004ko

uda zen eta *“gitarra bik, kaxoiak eta pianoak”* osatutako Kandela taldearen kide-musikari eta emanaldi kopuruak izugarri egin du gora ordutik. Lehenengo urtean Aitor Esteban (baxua; orain Manuel Sanz) eta Alain David (saxofoia) batu zitzaizkien, eta gaur egun taldeko kide dira Pepe Prat (perkusioak) eta Emilse Bartalay (flauta), horiez gainera talde-agaz batera jardun ohi dute Loreto de Diegok (cantea) eta Maria Martinek (dantza). *“Kandela musikariek osatzen dugu, noizbait dantza eta cantea ere batzen dira gurea, horietarako kolaboratzaile andana daukagu, batzuk*

ohikoak besteak noizbehinkakoak. Alde horretatik ez gara talde arrunta, horregatik 5 urte hauetan ziuurren 30 kolaboratzailetik gora (musikari, dantzari, abeslari) izan ditugu”, dio Unzagak. Orain 9 kantuko lehenengo diskoa prestatzen dabilta, erdia baino gehiago grabatu dute (Cata estudioak, Madril: ekoizlea:

**«Gurea proposamen
instrumentala da,
flamenko oinarrikoa,
baina kolore anitzekoa»**

Oscar Clavel) eta laster plazaratuko dute. Unzagaren esanetan, "Printzipioz, gurea proposamen instrumentala da, oinarri flamenkoa dauka, flamenko jondoa, buleriak, alegriak, latin-jazza, bossaren eta rumbaren bat, baina taldean beste tresna mota batzuk ere badira eta horiek taldearen soinuari beste kolore batzuk eranstean dizkiote; beste testuinguru batzuetara eroanez, latinoagoak, garaikideagoak... Gainera, ahotsa ere beste tresna bat balitz legez baliatzen dugu, eta dantza ere bai". Taldearen izenaren gainean zera dio: "zelanbait euskal nortasuna eman gura genion, jatorria adierazteko-edo, horregatik k-z idaztea; gero berba oso erabilia da flamenkoan, eta euskarazko esangurak suaren metaforagaz lotzen du...". Dioenez, "hemen azken aldiari flamenkoarekiko kutsu ezkorra ezabatuz joan da, eta jende askok aldeko jarrera du orain". ○

diskoak

Last Days At The Lodge
Amos Lee
Blue Note



Duela lau urte eman zituen Amos Leek bere lehenengo pausoak, Norah Jones bezalakoa musikakaz lan behar egin eta gero. Dagoeneko hiru disko kaleratu ditu jazz, country eta pop doinuak utzartuz. Bere azken lan honetan abestien gaiek maistasuna eta egoera sozialak islatzen dituzte. Bestetik, disko hau Don Was-ek produzitu du.

Rifter
Rifter
Musikherria



Nafarroako taldearen lehenengo maketa kalean da dagoeneko. Estrainekolan honek rock eta metalaren nahasketan murgiltzen diren zazpi abesti propio eta bideo muntaia batzen ditu. 2006an sortu zen talde honen proiektua, eta doinu indartsuak jotzen dituzte. Abestiak euskaraz eta gaztelaz dira.

Astral Weeks Live

Van Morrison

Listen To The Lion Records



40 urte pasatu dira musikari irlandarrak bere diskorik onena atera zuenetik. Orain, mundu guztian arrikasta itzela izan zuen lan hori berreskuratu, zuzenean moldatu eta editatu du. Morrisonek disko hau Hollywood Bowl-eko kontzertu bietan grabatu zuen. Lan honetan jatorrizko eredu jarraitzen dio, baina kopia hutsa egin barik.

*etorri
eta
ikus!!*

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalegatze bat)
Tf. 94 491 23 79
Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Etxera
eroango dizugu
gasoleoa

Txartel hau aurkezten
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure erosketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00



GORLIZ IRRATIA
Urbe Kosta Irratia 107.8 FM
www.gorlizirratia.com

[liburuak]

Doris Lessing euskaraz

Belarra kantari idazle britaniarraren lehenengo nobela itzuli du Koro Navarrok

Jokin Zaitegi bekari esker (Arrasate Euskaldun Dezagun, Elkar eta Kutxak antolatua) euskaratu da Doris Lessingen *The Grass Is Singing* (1950) nobela. Euskarazko itzulpengintzari begirako sari-keta horrek aurreko urtean Literatura Nobel saria jaso duen idazlearen lan bat itzultzea du helburu 2002tik. 2007an Doris Lessingek jaso zuen saria (zerrenda esanguratsu bateko azkena baino izan ez dena) eta Koro Navarro itzultzaileak lana euskaratzeko aukera, hala, abenduan argitaratu zen *Belarra Kantari* (Elkar). Iaz Jean-Marie Gustave Le Clezio saritu zuen suediar akademiak, beraz, aurtengo itzuliko dute idazle frantsesaren *Désert* (basamortua) liburu.

«**Andrazko baten amiltze psikologikoa, aurre-apartheideko Hegoafrika...**»

Belarra Kantari nobelagaz hasi zuen Lessingek idazle ibilbidea, eta lan entzutetsuena ez bada ere (*The Golden Book* izan liteke ezagunena), arrazakeria eta matxismoa salatzen dituen nobela honetatik bertatik igartzen hasten da idazlearen literatur mundua. Garcia Marquezen modura esanda, nobela iragarritako heriotza baten kronika da; amaiera hasieratik argi badago ere, bitartekoak dauka garrantzia; hor ba-



Doris May Tayler, Doris Lessing (Persia -Iran-, 1919)

tzen dira arrazoi guztiak: andrazko baten amiltze psikologikoa, dela matxismo jasangaitz baten eraginez, dela "gizaki modernoaren nortasun krisia, zein segurtasun ontologiko eza islatzeko; dela apartheid aurreko Hegoafrikako giro soziopolitikoa iruditatzeko (arrazismoaren injustiziak, zurien kolonialismo tiranikoa, kultur-giza mailak e.a.). Lessingen fikzioa sakonki autobiografikoa da, eta zuzentasun politiko barik idatzitako lan "gogor, erruki bako", gordin eta zuzen hau genero, arraza, botere harreman edota sexu ikuspegitik irakur liteke. ○

Informazio gehiago:
www.dorislessing.org (ingelesez)

liburuak



Elurte bateko ipuinak
Pako Aristi
Erein

Intxaurreondoko ikasleek idatzitako ipuinak fikzio narrazio batean kokatu ditu Pako Aristik, liburu berezi bezain erakargarria sortuz; haurren sormen freskoa eta idazlearen betetaria nahastuz. Bizitza eta literatura zein hurbil dauden ikusten lagunduko digu liburuak.



Alea
Beñat Sarasola
Susa

Beñat Sarasola idazle donostiarren bigarren lana da *Alea*. Poema liburu da, baina, aurrekoan bezala, honetan ere idatzeko era berezia erabiltzen du egileak, poesiarren betiko moldeak apurtuz. Ironia eta hitz joko korapilatsuak dira nagusi bere poemetan.

[kirola]

Baltz-gorrien mendeurrena

Urtean zehar ospakizun andana antolatuko ditu 1909an sortutako Arenasek



Komunikabideentzako egindako aurkezpenean bildutako zuzendaritza batzordea

Aurten beteko eta ospatuko du Arenas futbol klubak mendeurrena; oster, lehenengo partidak XX. mendea lehenengo hartsaldia hartzen zebilela jokatu zituen. 1901ean eman zizkieten baltz-gorriek baloiari lehenengo ostikadak, baina kluba zortzi urte pasatakoan sortu zen, 1909an. Arenasek lehenengo zazpi urteak "lehen mailan" jokatu zuen, eta hurrengo bostak bigarrenen (gaur egun hirugarren mailan dihardu). Hastapenetako urteetan gaurko "handien" kontra lehian ibili zen, baita garaitu ere: 1919an Espainiako Alfonso XIII.a Errege Kopako txapeldun izan zen, eta lehenaren ostean lotu zen 1917, 1925 eta 1927an. Orduantxe sortu zen gaurko Lehen Maila, eta Arenas izan zen sortzaile-tako bat.

Halere, garaikurrez gain, badu zer ospatu Arenasek: ehun urteko historia. Horretarako 2009an zehar gauzatuko diren zenbait ekimen (horietarako Getxoko Udalak 90.000 euro emango die) antolatuko ditu klubak, horien artean: Espainiako Futbol Ligaren sorreraren oroitzapenezko oinarri-futboleko txapelketa (berori jokatzeko talde sortzaileak

gonbidatu dituzte: Athletic, Atletico Madrid, Barcelona, Esportiu Europa, Real Madrid, Espanyol, Real Racing, Real Union, Real Sociedad eta Arenas); Bilboko Orkestra Sinfonikoak eta Ondarreta abesbatzak Euskalduna Jauregian eskainiko duten "Cantando al Arenas" kontzertua; San Mamesen jokatu den Athletic-Arenas norgehiagoka, Arenasen 100 urteak islatzen dituen erakusketa eta liburu; Areetako

«**Oinarri-futboleko txapelketa, Athleticen kontrako partida, karneta...**»

herritarrakaz egingo den ekitaldia (herri-bazkaria, euskal jokoak, dantzak e.a.).

Bestalde, mendeurrenaren karnet ofiziala ere (hainbat abantaila eskainiko dituen) aterako dute, bai pertsonen begirakoa ("Mendeurrenaren lagunak" 30 euro), baita enpresei zuzendutakoa ere (255 euro).

Amaitzeko, aipatu, Getxoko Udalak Arenas klubaren izena ipiniko diola Areeta-Erromoko Errekagane parkeari. ○

Informazio gehiago:
www.centenarioarenasclub.com

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l. SERVITEC

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 - ALGORTA

Korrontzi > musika taldea

“Lehenengo diskoa ondo zegoen, baina benetako arrakasta kontzertuetan izan da”



Agus Barandiaran

Mandolina, alboka eta whistle, base potentea baxu eta bateriagaz, eta nola ez, trikia dira beraien musika tresna nagusiak. Mungiako boskoteak 2004 urtean eman zituen lehenengo urratsak musikaren munduan. 2006an “Korrontzi” izenagaz estraineko diskoa kaleratu zuen; harrera ona, kritika ezin hobeak eta zenbait sari ere jaso zituen. Orain “Getxo” zuzeneko lanagaz igoko da Leioako oholtza gainera.

—Zelakoa izango da Leioan, apirilaren 3an, eskainiko duzuen zuzenekoak? Nobedaderik bai?

—Bai. Batetik, Getxon ikusi ez gaituenak, disko barriko abesti guztiak entzuteko aukera izango du Leioan, eta ikusi gaituenarentzat nobedadeak; konponketa barri batzuk egin ditugu boskote formatuan.

—Zelan definituko zenukete egiten duzuen musika?

—Trikia eta trikiaren betiko xarma Korrontziren uztarria da. Hortik aurrera konponketa modernoak, joko ezberdinak mandolina, alboka eta whistleagaz, base

potentea baxu eta bateriagaz, abesteko doinuak, dantza egitekoak, suabeak...

—Musika konposatzerako orduan, jaso duzue beste talderen eraginik?

—Estilo guztietako talde asko entzuten ditugu, hemengoak, zein kanpokoak; konposatzerakoan denak dauka bere eragina. Disko barriko kantetan eragin handia izan dute azkeneko urteetako bidaiek.

—Nori zuzendutako musika egiten duzue; uste duzue gazteei, oro har, musika tradizionala gustatzen zaiela?

—Berez, egiten dugun musika ezin da definitu tradizionala bezala. Tradizioa lepoan

hartu eta aurrera-pauso bat eman dugu. Adin guztietako jendea dator kontzertuetara. Askotan, lekua eta orduaren arabera alda daiteke.

—Konta egiguzu ‘Getxo’ disko barriko erreperitorioan zer topa dezakegun, eta nork konposatu dituen abestiak?

—Abestien ideiak Agusek ekartzen ditu lokalera, Mikelek lehenengo jantzia ematen die eta gero guztion artean burutzen ditugu. Disko barrian apur bat denetik topa dezakegu: arin-arin eta fandangoak gure

«Hasi ginenetik zuzeneko ona geneukala esan digute»

ukitu bereziagaz, balts suabeak, kopia zahar eta barriak, dantza egiteko doinuak, abestekoak...

—Taldeen normalean urteak ematen dituzte zuzeneko diskoa argitaratzeko, zuek lehen diskoaren ondoren atera duzue, zergatik hainbesteko presa?

—Hasi ginenetik esan digute zuzeneko ona geneukala. Jendeari lehenengo diskoa gustatu zitzaion, baina benetako arrakasta kontzertuetan izan dugu. Pentsatu genuen ona izango zela zuzeneko DVD batean izatea; alde batetik aurkezpen txartel bezala eta bestetik, jendeak etxean patxadan gure kontzertua ikusteko aukera izateko.

—Nolakoa izan da Mikel Urdangarin, Faltriqueira edo Obrin Past taldeko Xavi Sarriagaz grabatzeko esperientzia?

—Esperientzia bikaina. Mikelegaz entsegu egiteko aukera izan genuen, eta beste kanta bat egiteko konbentzitu genuen. Beste lagunei internetez bidali genizkien kanta, eta kontzertu egunean entzun genuen lehenengo aldiz haiek prestatutakoa. Guztiek egindakoagaz oso pozik geratu ginen. ○

Nik ikastaro berrian hartuko dut parte.*

*yo me apunto al nuevo curso.

AISA
Nuevo curso de acogida lingüística para nuevos y nuevas getxotarras

Getxo.
LOKALA - AFUNTAMENTO

EUSKARA BIZI

INFORMAZIOA
LOKAL EUSKARITZEA, TEL.: 94 464 62 99 (BILBOA) LAGAKETA ARIK EUSKARITZEA, TEL.: 94 430 47 34 (ALGORTA) J. A. ARIK EUSKARITZEA, TEL.: 94 460 66 71 (ALGORTA)

HABE

EUROPA

Nahikari Ayo > Errekagane

“Amomak gerizpea atsegin zuen, ez zuen beroa gogoko eta hona etortzen ginen”



“Udako goiz eguzkitsuetan, lehenbizi erosketak egiten genituen; mandatuak etxean utzi, bazkaria prestatu eta parkera eramaten ninduen”

“Animo ume! Ez bagabiltza azkar, zure aita bazkaltzera helduko da eta ez digu denborarik emango parkean egoteko”. Horrela ibiltzen zitzaidan amoma. Ikastolatik ateratakoan bere etxera joaten nintzen arrastiro eta udako oporrak berarekin igarotzen nituen.

Udako goiz eguzkitsuetan, lehenbizi erosketak egiten genituen, mandatuak etxean utzi, bazkaria prestatu eta ondoren parkera eramaten ninduen. Txikia nintzenean parkeetan, askoz jota banuak zeuden, gutxitan egoten zen kolun-

piorik edo jolasteko tokirik. Hori ez zen traba niretzat, txikiak garenean, imajinarioak dena konpontzen du eta banku soil bat kotxe bat, barku bat edo hegazkin bat izan daiteke.

Parke honetan orduak eta orduak igaro ditut. Gaur egun ez dago hainbeste zuhaitz, baina orain 20 bat urte, gerizpe gehien egoten zen lekua hauxe izaten zen. Amomak gerizpea atsegin zuen, ez zuen beroa gogoko eta hona etortzen ginen. Bere poltsa ireki eta gozokiren bat eskaintzen zidan, isilik mantentzeko asmoz.

Handik pasatzen ziren adineko andra guztiek ezagutzen ninduten. “Ene Mertxe! Zenbat handitu den iloba, zure alabaren antz izugarria dauka!”. Gaur egun, 70-80 urte bitarteko andra-gizonak ederto ezagutzen ditut, amomaren lagun guztiak, txikitant horrelako perlak botatzen zizkidatenak.

Berriketaldi luzeak izan ditut amomarekin bertan. Bere txikitako kontuak esaten zizkidan, zer egiten zuten nire ama eta izeko-osabek, kankak irakatsi... Une horiek ez dakizue zenbat igartzen ditudan faltan. ○

Ezkilore

Produktu biologikoak, elikadura naturala



Dolinda Naberan eta Ezkioga Kaltzakorta dendan

“**Elikadura biologikoa** ez da moda bat, bizitzeko modu bat da”. Esaldi horrek zabaltzen du Ezkioga Kaltzakortak Sarrikobaso kalean abenduan zabaldu zuen denda iragartzen duen informazio orria. Lagun batek animatu zuen *Ezkilore* produktu biologikoen denda zabaltzera. Lehengai kimiko barik egindako mota guztietako produktuez gain, zeliakoentzako, begetarianoentzako, alergikoentzako eta diabetikoentzako jakiak saltzen dituzte: “*Gure inguruan zaila da horrelakoak eskaintzen dituzten saltokiak aurkitzea; Getxon 2 edo 3 besterik ez daude*”. Oraindik zer ikasia badu ere, aspaldi hasi zen Kaltzakorta elikadura naturalaren mundua ezagutzen: “*Gorputzarentzako oso ona da; barrutik garbi mantentzen laguntzen gaitu*”.

Kafea, garagardoa, soja yogurtak, hanturgesak, olioak, esnea, txokolata, pasta, arroza, tofua, zukuak... dieta osasuntsua mantentzeko behar den guztia aurki daiteke. Elikagaiez gain, etxean erabiltzeko, higiene pertsonalerako eta umeentzako produktuak ditu: ekobola (garbigailuan arropa xaboi barik garbitzeko), konpresak, krema ekologikoak (animalietan testatu gabekoak), pixoihalak, kotoia, *Diba Cup* tanpoi naturala... “*Ekobolak arrakasta handia izan du*”. Jendea kuxkuxeatzen edo informazio bila hurbildu ohi da dendara: “*Kontsulta jarri gura dugu, mediku naturista batez*”. Astelehenetik zapatara dago zabalik, goizez eta arratsaldez. ○

Sarrikobaso 15, GETXO
Tel: 94 657 70 18. ezkilore@gmail.com



URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



galdaretxe
• Maidagan 35, GETXO Tf. 94 491 11 25
• Mayor 17, AREETA Tf. 94 464 77 29
• Sabino Arana 67, LEIOA Tf. 94 464 40 58
• Telletxe 11, ALGORTA Tf. 94 460 32 14
• Sabino Arana 9, SOPELA Tf. 94 676 11 01



ARTAZA ETXEA
jatetxea
• gosariak
• txuletoia • bakailoa
• arrain freskoa
asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz
Erreserbak: Tf. 94 463 03 92
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TF. 94 464 41 25
AREETA



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TF./FAX: 94 491 34 91
MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI -
GETXO
basalbobaserria@yahoo.com

Toponimoa > **Errekagane**

Errekagane (Kalea eta parkea):
Gobelaren ertzetik joateagatik jarri zioten kale honi Errekagane izena. Tamalez Errakagana izena eman behar zioten, hori baita usadioa, nahiz eta azken urteotan -gane amaieradun izenak modan jarri diren.
Barrutia: Erromo (Getxo)



prentsa • aldizkariak
 GETXOKO KIROL PORTUA
 Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
 ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- ISPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasorekin bat)
 T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa”
 Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarrieriak

Orduña Mendatea 1
 T: 430 22 13
 GETXO

Telletxe 13
 T: 460 02 88
 ALGORTA




Usategi kafetegia



*Usategi parkea z/g,
 Algorta*

**Telf. erreserbak: 94 460 64 13*


[horoskopoa]

URA  (Abenduak 21 urtarrilak 19) Andaluzia zain daukazu, opor txikietarako izango bada ere. Zeren zain zaude? Haru egizu koltxonetan eta segi eguzkitara eta uretara, merezi duzu eta!	OTSOA  (Urtarrilak 20 otsailak 18) Lagun horrek bakarrik utzi zaitu beste norbaitegaz oporretan joateko, bakarrik lotuko zara herrian? Zaude lasai, egongo da-eta zereginik. Paseo ederrak, lagun barriak... zeure buruagaz egoteko aukera parebakoa.	ADARRA  (Otsailak 19 martxoak 20) Poltsa prest daukazu duela hainbat aste, irrikan zabilta solariumeko beltzaran kolorea luzitzeko, ezta? Segi bada, azazkalik barik lotuko zara azkenean horrelako urduritasunagaz.
AITZURRA  (Martxoak 21 apirilak 19) Patxada izan duzu eta azkenean lortu duzu supermerkatuan ezagututako lagun bereziagaz lotzea, zorionak! Zer egingo duzue, zinemara joan, ibilaldia egin... Baina garaiotan, denborarik galtzen ez da ibiltzen jendea...	HOSTOA  (Apirilak 20 maiatzak 19) Ilargiak bat egingo du zure horoskopo zeinuan eta zorioneko egunak izango dira datorren asteetakoak. Aprobetxa egizu gura duzuna egiteko, dena ondo ateratzeko txartel guztiak daukazu eta.	EGUZKIA  (Maiatzak 20 ekainak 18) Arraunean jakin ez, baina piragua erosi duzu, ez zara-eta atzera geratzen den horietakoa. Baina agian pasatu zara oraingoan, kontuz ibili, zure ezjakintasunaz besteak ohartu baino lehen.
GARIA  (Ekainak 19 uztailak 18) Esan genizun ba, lagunek pazientzia daukate, baina puska baterako bakarrik. Barkamena eskatu eta eurekaz denbora gehiago igaro beharko zenuke, berandu baino lehen.	LASTOA  (Uztailak 19 abuztuak 17) Rumm, rumm... Hots ederra ateratzen du auto barriak, ezta? Gainera, gasolina merkeago dago aspaldian. Gozatzeko garaia da orduan. Oporretan ere zugaz eroatea pentsatzen zabilta?	IRATZEA  (Abuztuak 18 irailak 16) Sasoiko jarri zara ba! Aste Santuan mendira joango zara? Ederto pasako duzu orduan. Baina zortzimilakoak aurreragorako utzea hobe izango da, ez da lartxo izango?
META  (Irailak 17 urriak 16) Maitasuna: beti ez da dena larrosa kolorekoa. Paga: krisialdia bukatzeaz dago. Osasuna: eguraldi onak on egin dizu. Betiko legez, orekan dago sekretua!	HAZIA  (Urriak 17 azaroak 15) Portugal ala Lekeitio, nora joango ote naiz? Lisboa polito dago sasoi honetan, utzi egizu Lekeitio antzaretarako, motel! Askoz giro hobea topatuko duzu orduan.	NEGUA  (Azaroak 16 abenduak 20) Zelan daroazu dieta? Nabari da on egin dizula, umoretsu eta aldarre onez zabilta. Kontuz gero Aste Santuan, oporretan ohituta txarrak erraz hartzen dira eta.




irratia 108 fm

www.koskairratia.com



HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

1. Barrabila. 2. Urteko IX. hilabete. Zer gauzari. 3. Berotasunaren neur-gailu. 4. Makila luze zuzen. Joaki naiz. 5. Nonbait. Entzun. 6. Gisulabea, karea egiteko labea. Azkena birritan. 7. Una, neka. Sorginak. 8. Kontsonantea. Jakituna. Iodoaren ikurra. 9. Oinarizko edari. Guztiz larritua. Atzizki femeninoa. 10. Azalekoa. ... egin, ausiki.

Goitik behera

1. Zirikatua. 2. Ugaztun hausnarkari handiak. Kontsonante errepikatua. 3. Eguraldi bero itogarria. Bat. 4. Judolarien jantzi japoniar. Noka, du. 5. Sail, soro. Bait da. 6. Boroaren ikurra. Mila. Ganibet 7. Izenez aipatuak 8. Kobre eta zinkeko nahastura edo aleazio. Kasik. Zero. 9. Josteko tresna. Kontsonante errepikatua. 10. Zain. Ipurdiak.

Soluzioak

K	S	O	K		V	N	I	R	V
V	S		V	O	I		R	U	
I		V	U	I	D	V		I	
K	V	I	Z	V		I	K	V	
Z	Z		V	I	B	O	R	V	K
	I	D	V		N	O	N	I	
	V	O	N		R	O	G	I	Z
O	R	E	M	O	M	E	R		I
I		R	Z		L	A	I	R	A
A		L	O	A	B	K	A	B	K

asmatu eta irabazi > lagun birentzako bazkaria



Nor da?

- ETB 2ko asteburuko albistegien aurkezlea
- Bartelonan jaio zen, nahiz eta Iruñean bizi den
- Kontinente izena du

> Aurrekoaren erantzuna: Juan Martinez de Irujo.

> Irabazlea: **Karmele Elozegi Gonzalez (Algorta)***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Argia

astekariaren biru
hilabeteke harpidetza doan



+



•Jolasak eta
liburuak

www.argia.com

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean lagun birentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria



AREETAKO CAÑADAK ATERATAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

ASTRABUDUKO LAGUN ARTEA DANTZA TALDEA, 1953

Lagun Artea ez zen izan Astrabuduko lehen dantza taldea baina lehen talde mixtoa bai; 1953an sortua, lau zapabost urte iraun zuen. Entseguak hasieran San Lorenzo ermitan(gutxi gorabehera gaur egun udal eskolak dauden lekuan) egiten ziren; geroago auzoko San Lorenzo elizan. Irakastearen ardura Bilboko "Dindirri" taldekoek zuten: mutil bi (Barrondo eta Mendia) eta neska bi. Bere ekitaldiak Erandiora bakarrik mugatzen ziren, Erandioko auzo ezberdinetara. Goiko argazkia Areetako Cañadak atera zien bere argazki-dendan eta horretarako guztiok trenez joan ziren Astrabudutik Areetara. ○

Goitik hasita ezkerretik eskuinera:

1. Ierroa: Candido Balletero, Felipe Agirre, Jesus Aurrekoetxea (taldearen sortzailea), Felix Zuberogoitia, Fernando Balletero (GB), Juan Antonio Muruaga, Jose Antonio Lazaga, Javier Garcia (GB), Jesus Bilbao (taldearen sortzailea) (GB), Joseba Zubillaga, Roberto Llantada (GB), Xabier Espilla (GB).
2. Ierroa: Ramon Aresti (txistularia) (GB), Mari Karmen Lazaga, M^aRosario Azkue, M^a Angeles Alfaro, Begoña Eskauriaza, Lurdes Laiseka, Isabel Eskauriaza.
3. Ierroa: Luzia Gutierrez, M^a Angeles Fayó, Bego Agirre, Tere Fernandez, Rosario Agirre, M^a Angeles Moreno.

XABIER USABIAGA > Kazetaria

“Hartza gustuko dut; batetik basatia, eta bestetik, noblea da”

Testua: **Maitane Nerekan**



Zer gura zenuen izan txikitan?

Denetarik, adibidez informatikaria.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Ghandi, bizitzaren funtsa islatzen jakin zuelako; zoriontasunaren sinpletasuna zertan datzan esaten jakin zuen.

Zerk ematen dizu beldurra?

Ez naiz ezeren beldur; agian, osasuna galtzarena, baina ez nau gehiegi obsesionatzen.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat.

Udako edozein, kalean jolasten lagunekin.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik badago?

Gehientsuenak egingo nituzke berriro. Bat aukeratzekotan Karibera joango nintzateke. Naturaren aberastasun ikaragarria, eguraldi bikaina, patxada... oroitzapen onak ditut.

Animalia izango bazina zein gura zenuke izan?

Hartza; batetik basatia eta indarra erakusten duena eta, bestetik, oso animalia noblea da.

Gehien gorroto duzun topikoa?

Zerbait historikoa dela esatea aparteko garrantzia ez duenean.

Ohitura txarren bat?

Gauza gehiegi geroko uztea eta ezetz esaten ez jakitea.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?

Ezagutzen ditut leku ederragoak, baina duen esanahiagatik nire herria esango dut, Asteasu.

Abesti edo musika talde gustukoena?

Rod Stewart.

Zer gabe ezin zaitezke bizi?

Ilusiorik gabe.○

LABURREAN— Xabier Usabiaga Asteasun (Gipuzkoa) jaio zen 1969an. 13 urterekin hasi zen txirrindularitzan; 1992tik 1994ra bitartean profesional gisa aritu zen. Baina, bihotzeko lesio batek txirrindularitza profesionala uztera derrigortu zuen. Ordutik, kazetari eta iritziemaile moduan ikusi ahal izan dugu. SER irrati katearekin Euskal Herriko Itzuliko komentaria izan zen kazetaritzan burututako lehen lana. Geroztik, hainbat lasterketetako komentaria izan da. Gaur egun, ETB 1eko eguerdiko albistegia gidatzen du Maribel Aizarnarekin batera. Martxoaren 24an eta 25ean Getxon izan genuen, *Hartu eta pasa* hitzaldi sorta aurkeztu.



Zelan deitzen da toki hau? Zer esan nahi du horrek?
Zergatik deitzen da hau horrela? Ezagutzen dituzu Getxoko toki izenak?

Martxoak 17	18:00	Santa Ana-Romo-Neguri-Aiboa	3,6 Km
Martxoak 27	18:00	Bolua-Neguri-Ereaga	3,4 Km
Apirilak 1	19:00	XX. mendeko euskararen Itibidea: Portu Zaharrean hasita	1 Km
Apirilak 7	19:00	Bolua-Santa Koloma-Bolua-Aiboa	2 Km
Apirilak 21	19:00	Tellebxe-Ereaga-Arrigunaga-Aixerota-Bidezabal	3 Km
Apirilak 30	19:00	Bidezabal-San Inazio-Neguri	3 Km
Maiatzak 5	19:00	XX. mendeko euskararen Itibidea: Portu Zaharrean hasita	1 Km
Maiatzak 13	19:00	Santa Ana-Romo-Neguri-Aiboa	3,6 Km
Maiatzak 21	19:00	Andra Mari-Sakuskune-Diliz-Andra Mari	5,9 Km
Maiatzak 29	19:00	Andra Mari-Diliz-Galea-Andra Mari	5,7 Km
Ekainak 1	19:00	Bizkaia Zubia-Zugatarte-Ereaga-Igeretxe	4,1 Km
Ekainak 9	19:00	Bolua-Neguri-Ereaga	3,4 Km
Ekainak 17	19:00	Tellebxe-Ereaga-Arrigunaga-Aixerota-Bidezabal	3 Km



Getxo

